




ARGIA



EUSKARA MUGIMENDU FEMINISTAN

Hizkuntza zapalkuntza ere lehen lerrora


22-27. orriak

#2.717 | 2021 / 01 / 24 | 3,90 €



**"1969an kaleko
borroka bor-bor
zegoen"**

12 | DOMEKA ELEZKANO



**Proiektu
komunitarioa
huste arriskuan**

28 | ASTIKA HERRIA



**"Ohituta gaude
kontzertu guztiak
berdin egitera, eta
horrek nekatzen nau"**

44 | PERU GALBETE

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

LARRUN #259
HILABETEKARI MONOGRAFIKOA



KLIMAK BADU ARRAZA

ARGIA.EUS/LARRUN

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN
UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO ILUSTRAZIOA:
SHUKARE


Iritziak

- 17 | ENDIKA ALABORT
- 18 | KATIXA DOLHARE
- 19 | ARKAITZ ZARRAGA
- 19 | ITXARO BORDA
- 20 | PAULINE GUELLE

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 40 | DENBORAREN MAKINA
- 41 | ARGIA KOMUNITATEA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA:
ISABEL BENÍTEZ
- 53 | BERANDUEGI



35 | ESTATUAK ERAISTEA

“Ondarearen esanahia eta forma birmoldatu behar dira, parez pare talka egiten badu gizarte berdinzaleagoa eta bidezkoagoa lortzeko borroka materialarekin edo sinbolikoarekin”. Pablo Barruezo, Glasgowko unibertsitateko ikerlariaren artikulua.

Elkarrizketak eta erreportajeak

10 | NET HURBIL

Europari nekeago bihurtu zaio munduko beste herriak zakarrontzi gisa erabiltzea

Jenofa Berhokoirigoin

12 | PERTSONAIA | DOMEKA ELEZKANO

“Erraz hitz egiten da tabernan, errazegi”

Miel A. Elustondo

22 | EUSKARA MUGIMENDU FEMINISTAN

Erdaldunek euskal komunitatea aitortzeko lanean

Onintza Irureta

28 | GIZARTEA

Astika Herria eraiste arriskuan

Andrea Bartolo

31 | EKONOMIA

Grebak sindikatua indartzen du

Urko Apaolaza

32 | GIZARTEA

“Jendeak asexualoi buruz duen irudia? Erreprimitu batzuk garela”

Mikel Garcia

38 | HEZKUNTZA

Gotorlekuak uzteko garaia da

Irati Tobar

44 | KULTURA | PERU GALBETE

“Ahots bakoitza norberarena da soilik, eta oso egiazkoa da”

Xalba Ramirez

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea

Lehendakaria

Bego Zuza

Erredakzioa

Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Jone Markuleta, Lander Arbelaiz, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte

Salmenta

Karlos Olasolo, Olatz Korta, Pello Basurto

Idazkaritza

Aloña Sorraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta
interaktiboa

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Gizakia muga

Enpatiaz eta elkartasunaz mintzo dira gobernuko eledun eta kanpaina guztiak pandemia garai honetan. Baina aurrean duzuna birusa ez denean, beste gizaki bat laguntza eske agertzean, axolagabekeria eta hesi bilakatzen dira hitzok. Hori ikusi dugu egunotan Bosnia-Herzegovinako mugaldeko elurretan edo Guatelama eta Honduras artekoan. Han milaka lagun –6.000 eta 9.000 artean– AEBetara bidean dira. Ohi legez, gehienak pobreziatik eta indarkeriatik ihesean dira, baina oraingoan pandemiak eta iazko amaieran herrialdea astindu zuten bi urakan handiek egoera okertu besterik ez dute egin. Irudian: Guatemalako soldaduek eta poliziek migratzaileei bidea blokeatu zieten igandean, borrak eta gas negar-eragileak erabiliz.

📷 ESTEBAN BIBA / ALAMY 🗨️ AXIER LOPEZ



Polizia grabatzea eskubidea da

ARGIA


Gasteizko udaltzain batek polizia operazio baten irudiak hartzea debekatu nahi izan zion mehatxuka ARGIAko kazetari bati 2020ko maiatzaren 7an. ARGIAk salaketa aurkeztu zuen Gasteizko Herritarren Defendatzailearen aurrean. Sindikoak arrazoia eman dio ARGIAri: polizia grabatzea eskubidea da; herritar guztiona, ez soilik kazetaria. Sindikoari emaniko erantzunean, Udaltzaingoak berak onartzen du kazetariaren eskubidea. Udaltzaingoaren esanetan, “egon daitezke, kasuren batean, oker egon daitezkeen agenteak”, baina ez zen udaltzainaren aurkako neurririk hartu “diziplinazko arau hausterik ez zelako egon”.

Polizien irudiak hartzea legez kanpoko zela ziurtatu zion udaltzainak ARGIAko kazetari Zigor Olabarriari, eta eginez gero desobedientzia delitua leporatzearekin eta mugikorra kentzearekin egin zion mehatxu. Presente zeuden gainontzeko hiru udaltzainek ez zuten beren kidea zuzendu. Geroago polizia gehiago heldu zen, eta azkenean operazioaren buru zen udaltzainak eskubidea onartu zion, “kazetari” gisa.

Ekainean ARGIAk eskaera bat sartu zuen Sindikoan –Gasteizko Herritarren Defendatzailea, udal mailako Ararteko baten baliokidea–. Sindikoari eskatu zitzaion, besteak beste, gertatua baloratu zezala eta argitu zezala oro har kazetariok zein herritarrok poliziaren irudiak hartzeko eskubidea dugun ala ez. Abenduaren 29an datatutako erantzuna jaso du berriki ARGIAk.

POLIZIA GRABATzea, HERRITAR GUZTION ESKUBIDEA

Sindikoaren erantzuna argia da: “Egia da zuri emandako informazioa, eta honen ondorioak, ez zirela bidezkoak izan, argi eta garbi baitago zuk, kazetari zaren partetik, argazkiak ateratzeko ahalmena eta eskubidea duzula”. Udaltzaingoaren Segurtasun Sailak berak eskubide hori onartzen duela jasotzen du Sindikoaren txostenak. Horrela dio hitzez hitz Herritarren Segurtasunaren Saileko Zuzenda-



ARGIA

ri Javier Sáezek Sindikoari erantzunez sinatzen duen idatziak: “Kazetaritzat egiaztatuta zegoen pertsonari, lehenbiziko momentu batean, han zegoen udaltzain batek ez grabatzeko adierazten dio. Esku-hartzean agertzen den nagusi batek agente hau zuzentzen du eta kazetariari bere lanean diharduela udaltzainak grabatzeko ahalmena duela jakinarazten dio, eta aldi berean irudiak hartzean eta ondorengo erabileran duen erantzukizunari buruzko informazioa ematen zaio”. Udaltzaingoaren oharrak ez du inolako aipamenik egiten udaltzainaren jarrera oldarkorraz eta mehatxuez.

ARGIAk Sindikoari eskatu zion argitu zezala, kazetariak soilik ez, edozein herritarrek duen ala ez eskubidea espazio publikoan lanean ari den Poliziaren irudiak hartzeko. Mozal Legeak dioena eta horren gainean Segurtasun Estatuaren Idazkaritzak argitaratutako barne instrukzioa gogoratzen ditu Sindikoak, ondorioztatzeko: “Edonork atera ditzake argazkiak, baina muga jakin batzuekin: segurtasuna arriskuan ez jartzea eta bidegabeko tratamendurik ez egitea”. Hor-taz, “ondorengo erabileraren arabera erabakiko da salatzerik dagoen”. Hori da urtetan hainbat hedabide independentek eta herri mugimenduk defendatu duguna, horregatik gomendatu dugu irudiak hartzeagatik Poliziak identifikazioa

eskatuz gero emateko, baina grabatzeari edo argazkiak ateratzeari utzi gabe.

ARGIAk Sindikoari eskatu zion baita ere Udaltzaingoari galdetu ziezaiola ea gertaera aztertu eta barne mailako prozedurarik ireki ote zuen, eta zein den “udaltzainek jasotzen duten formakuntza hiritarrek bide publikoan euren irudiak hartzeko duten eskubidearen inguruan”. Zera dio Segurtasun Saileko zuzendariak: “Poliziaren interbentzio orotan bezala, udaltzainak okertu daitezke. Hori dela eta, beharrezkoa da garrantzizko esku-hartzeetan gainbegiratzeko lanak egiten dituen arduradun bat bertaratzea beti”. Kazetariak eta herritarrek seguruago egongo ginateke esku-bideak “gainbegiratzeko lanak” egiten dituen “arduradun” batek baino, polizia guztiek berrmatuko balizkigute, eta horretarako formazioa ezinbestekoa dela uste dugu.

Azkenik, Udaltzaingoak jakinarazten du ez dela bere aurkako neurririk hartu.

GRABATU POLIZIA

Informatzen jarraituko dugu, Polizia salatuko dugu beharrezkoa denean. Kazetari eta herritar bezala. Jendarte justu batean arrunta beharko luke herritarrek bere zerbitzura omen dauden lana fiskalizatzeko aukera eta ohitura izatea; borrokatu beharreko eskubidea da.

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Bizitza deskribatzen du



ARITZ GALARRAGA

I dazle-mendizale kategoria bat existituko balitz, Erri De Luca genuke paradigma –euskaldunen artean hautagai ugari aurki liteke, Borda, Epaltza, Sarasola; baina ze euskaldun ez da mendizale, pixka batean behintzat, besterik ez bada intimitatean?-. Auskalo mendizaletasun horregatik, baina fama dauka De Lucak euskal irakurleen artean. Niri iruditzen zait idazle bat gainbaloratu; edo zorte txarra izan dut irakurri dizkiodanekin. Adibidez azkena, *Impossibile*, zeina den mendi literatura –“norberak mendira joateko bere motiboak dauzka; nirea da gauza guztiei bizkar ematea”–, baina baita kartzelakoa ere, euskaldunoi hain gertuko zaigun azpigeneroa –pentsa, hasieretatik, Etxepare bera Biarnoko hartara sartu zutenetik-. Protagonista dago iragan garai iraultzaileetako kide bat hiltzeaz akusatuta, eta nobelaren zatirik handiena da epaile batek egiten dion galdeketa, une batek aurrera gehiago dirudien arren elkarrizketa sokratikoa. Hara euskal irakurleari De Luca gustatzeko hirugarren elementua, ukitu politikoa, ez bakarrik bere obrarena, baita De Luca bera ere, izan baitzen iraultzaile 70etako Italian. Da oraindik ezeroso, duela ez asko absolbitu baitzuten Lyon-Turin abiadura handiko trenbidea sabotatu behar zela esateagatik.

De Lucaren literaturak konbentzitu ez, baina gauza bat eskertu behar zaio, ez duela ideiarik inposatzen, ez duela irakurlea leziazten, ez duela literaturaren aitzakian propaganda egiten –hiru gauza dira, baina tira-. Azken nobelaren aurkezpen elkarrizketa batean esaten zuen, “autorearen tesi bat frogatu nahi duen nobela ezinbestean izango da pobre. Literaturak bizitza deskribatzen du, irakurlearen esku dago gero ze alde hartu”. Izan ere ez da literatura, ez dira musika, zinema eta gainerakoak, tesiak eta mezu garbiak erakusteko lengoaiarik egokienak. Kontua da asmo horrek bakarrik ere ez duela beti literatura ona ziurtatzen. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



“ESKATZEN DUDAN BAKARRA DA GERATZEN ZAIGUN DENBORA, ETA EZ DA ASKO IZANGO, ETXEAN IGARO AHAL IZATEA”

ÁNGEL MIGUEL MEDRANO, ETXETIK KALERATUA IZATEKO ARRISKUAN

Sabadell bankuan mailegua eskatu zuen Medranoren semeak eta abal gisa gurasoen etxea jarri zuten. Mailegua ordaindu ezinaren ondorioz, “zorra kitatzearen truke etxea eman nion bankuari 2017an eta eskatu nien bakarra izan zen alokairua ordainduz bertan bizitzen jarraitu ahal izatea. Nahiz eta alokairu kontratuan jarri hiru urterako zela, bankuko zuzendariak berak agindu zidan kontratu estandarra zela, lasai egoteko, alokairua berritzeko arazorik ez zela egongo. Orain esan digute ez dutela kontratua berritzeko asmorik”. Irungo etxetik kaleratu dezakete 75 eta 78 urteko bikotea. **ARGIA.EUS (2021/01/12)**



Sektore publikoan behin-behinekotasuna desterratu



JUAN MARI ARREGI

Hego Euskal Herriko sektore publikoan dagoen behin-behinekotasun handiaren aurka mobilizazioak egiten hasi dira sindikatuak. Espainiako Estatu osoan dagoen egoeraren oso antzekoa da. Lurralde Politika eta Funtzio Publikoko Ministerioaren datu ofizialen arabera, gaur egun Espainiako Estatuan bi milioi eta erdi pertsona baino gehiagok (2.598.481) osatzen dute administrazio publikoetako langileen kolektiboa. Plantillen zahartzea eta langile askoren kontratu-ezgonkortasuna dira konpondu beharreko arazak.

Hego Euskal Herrian kolektibo horrek 155.749 langile ditu (117.615 EAEn eta 38.134 Nafarroan). EAEn barrikarrik ez dugu Nafarroako daturik 50.000 langile inguru daude sektore publikoan lan-kontratu finkorik gabe urte luzez lanean daramatenak, nahiz eta haien lana egiturazkoa izan. Euskal sektore publikoko hamar enplegutik lau aldi baterakoak dira, batez ere hezkuntzan eta osasungintzan.

Estatuak, gobernuak eta administrazio publikoek ez dute inolako justifikaziorik behin-behinekotasun politika horri eusteko, enpresa pribatuentzako enplegu duin eta egonkorren eredu izan beharko luketenean. Premiazkoa da indar sindikalak, sozialak eta politikoak elkartzea, egoera horri aurre egiteko, etengabeko mobilizazio handi bat izan dadin, sektore horretako langileen eskubideak errespetatu daitezkeen. Horiek errespetatzea oso erraza da gainera: aldi baterako enpleguak egonkor bihurtuz oraintxe bertan. ●



ECUADOR ETXEA

Auzo hotza

URKO APAOLAZA AVILA

Iberdrolak Bilboko Kolon Larreategi kalean duen egoitza aurrean dozenaka lagun bildu ziren urtarrilaren 13an, “energiaren sektoreko mafia” salatzen. Argindarra %30 garestitu da Hego Euskal Herrian hotz-bolada baten erdian; baina gorakada ez du hotzak ekarri, prezioa finkatzeko sistemak baizik.

1997an Aznarren garaian onartutako argindarraren legeak sektorea guztiz pribatizatu zuenez geroztik, sisteman sartzen den azken teknologiaren MWh-ko eskaintzarekin kalkulatzeko da merkaturako prezioa. Gas naturalak, esaterako, zazpi bider kostu handiagoa du; horregatik, berriztagarrien produkzioa gutxitu eta energia fosiletara jotzean asko igotzen da prezioa.

Goienerreko Maria Arretzek, *pool* deituriko enkante horren gardentasun falta nabarmendu du euskal telebistan, konpainia handiek “trikimailuak” erabiltzen dituztelako, esaterako normalean euren jabetzakoak diren zentral hidraulikoen eskaintzarekin. Iberdrolak 2020ko lehen bederatzi hilabeteetan 2.681 milioi euro irabazi zituen.

COVID-19ari aurre egiteko etxean geratzeko eskatzen ari zatzaizkigun honetan, herritar asko pobrezia energetikoan bizi da, eta argindarraren prezioa finkatzeko sistema opaku horrek arrakala handitu baino ez du egiten. Sektorea berriz publikatzea ari dira eskatzen eragile asko, eta zentzu osoa dauka eskariak, ez baita bidezkoa oinarritzko beharrian batekin espekulatzeko. Isaac Rosa idazleak El Diario.es-en zioen, hotza, erosteko ahalmenaren arabera dela, hotzak klaseak eta auzoak desberdintzen dituela.

Horregatik, energiaren erabilera arduratsua egitea ere badagokigu herritarroiei eta erakundeei. Nola liteke elurte eta hotz-bolada historiko baten erdian, Sadar futbol zelaiaren berde koloretsua mantendu nahi izatea gau eta egun berogailu erraldoiak erabiliz? Areago, kalean zeropean bizi direnen egoera gogorrak ikusita? Galde diezaiotela Gasteizen zabor edukiontzia baten epelean lo zegoela, joan den astean Jundizeko biokonpost plantan amaitu zuen lagunari. Duela bi aste Hendaian etxegabe bat hil zen hotzaren ondorioz, duela hiru Zarautzen beste bat... Horiek ezin izango dute erantzun. Auzo hotza ez, auzo lotsa. ●



SUTEA ZUBIETAKO ERRAUSTEGIAN

DONOSTIA. Sei mila tona hondakinentzat prestatutako depositu batean aurreko egunetik pizturik zen suak indarra hartu zuela ikusita, Sos Deiak zerbitzura deitu zuten erraustegiko langileek urtarrilaren 12an. Kez bete zen ingurua, hainbat orduz. Jada hirugarren sutea dela eta guztira erraustegiaren bueltan izandako zazpigarren ezbeharra dela jakinarazi du GuraSOSeK. Bermerik gabe lanean ari den erraustegia berehala ixtea exijitu dute.

DANTZA 449

euskal dantza tradizional ondare immaterial gisa katalogatu ditu Zatak elkarteak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 111 herritan, 2015-2020 bitartean egindako ikerketan. Sarean kontsultatu daiteke dagoeneko katalogoaren zati bat. Lapurdin, Nafarroan, Nafarroa Beherean eta Zuberoan ere ari dira katalogatze-lanetan.



Txertaketa motel doa Hego Euskal Herrian

ARGIA


Espainiako Estatuan erkidego bakoitzean txertaketa nola doan eguneratzen du Gobernuaren txosten batek. Urtarrilaren 14ko datuen arabera –astekari hau ixtean argitaratu diren azkenak–, EAE da geldoen ari den erkidegoa –txertaketaren %46 egin da– eta Nafarroa da bigarren motelena, Madrilekin batera –txertaketaren %51 egin da–.

DATUTAN

EAEk 47.205 Pfizer txerto eta 1.400 Moderna txerto jaso ditu, guztira 48.605 dosi, eta horietatik 22.464 jarri ditu esandako datan. Nafarroak 17.700 Pfizer eta 500 Moderna txerto jaso ditu, guztira 18.200 dosi, eta horietatik 9.305 jarri ditu.

ESTRATEGIA

Espainiako Gobernuaren txertaketa estrategiaren arabera, lehenengo etapan gaude eta martxoaren 21 arte iraungo du etapa honek. Lau taldek dute lehentasuna dosia jasotzeko, hurrenkera honetan: zahar etxeetako egoiliar eta langileak; COVIDaren lehen lerroko osasun langileak; beste osasun langileak; eta menpekotasun handia duten adinekoak eta horien zaintzaileak. Gobernuak gogoratu du txertoa hartzea borondatezkola dela eta ezezkoa ematen dutenen berri txertoaren erregistroan jasotzea “garantzitsutzat hartzen da”.



POLIZIA. 40 urte inguruko emakume bat tiroz hil du poliziak, Baionan, kontrol batean ez gelditu eta autoz poliziei buruz bideratu zelako. Hurrengo egunean, “Polizia bortizkeria gelditu” lelopean elkarretaratzea egin dute herritarrek. Polizia libre eta kargurik gabe geratu da.



MUGAK. “Immigrazio klandestinoaren eta terrorismoaren aurkako neurri” gisa, urtarrilaren 14tik itxita daude Hego eta Ipar Euskal Herriaren arteko hainbat errepede eta ez dute zehaztu noiz arte. Etorkinak terrorismoari lotzeko joera hau ez du berria Frantziako Gobernuak.



PRESOAK. Urtarrilaren 11ko auto batean, Antton Troitiñoren osasun egoera dela-eta, Espainiako Auzitegi Nazionalak 104.4 artikulua (3. gradua) aplikatu dio eta baldintzapeko askatasuna eman dio. Autoaren arabera, Troitiñok “oso gaixotasun larri eta sendaezina du”.

EUROPARI NEKEAGO BIHURTU ZAIO MUNDUKO BESTE HERRIAK ZAKARRONTZI GISA ERABILTZEA

Urtarrilaren 1az geroztik Europar Batasuneko herriei debekatua zaie plastiko “arriskutsuak” zein “bereizi gabekoak” munduko beste herrietara bidaltzea. 1992az geroztik Basileako Itunak mugatzen zuen doi bat fenomeno, baina orain askoz plastiko mota gehiago dira sailkapen horretan sarturik. Hilabetero 150.000 tona plastiko ditu Europak beste herrietara bidaltzen, eta jakinik zati handi bat birziklatu ezinean naturan zein ozeanoetan metatua ala errea dela, albiste ona da ingurumenarentzat zein guztion osasunarentzat. Plastikozko zaborren merkatuari begira jarri gara, errealitate honi buruz gehiago jakin nahian.

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Erran gabe doana oroitarazi beharra daukagu hasteko: pilatzen ditugun zaborrak begi-bistan ukan gabe ederki bizitzeak ez du erran nahi hondarkin kopuru jasagarria eta kudeagarria ondorioztatzen dugunik. Lurpera, erraustegira eta batez ere, munduaren beste puntara ez bagenitu bideratuko, asfaltian gaina harturik liguke zaramak. Hain zuzen, urtero 2.000.000.000 tona zabor sortzen ditugu mundu mailan eta eredu berean segituz gero 3,4 bilioi tona genituzke 2050ean, *planetoscope* gunearen arabera. Plastikoa dagokionez, 2015az geroztik 6.900.000.000 tona hondarkin pilatu ditugu –hauetan bakarrik %9 dugarik birziklatu–. Europako Ingurumenaren Agentziaren arabera, hilabetero 150.000 tona plastiko ditugu Europar Batasunetik kanpora bidaltzen.

Zaldibar bere baitan duen herri honek zerbait daki zaborren *business*-az eta honen albo-kalteez, baina lupa atzeratuz laster ohartzen gara zaborren kudeaketa errentagarritasunak bideraturikoa dela, ingurumena eta osasuna bigarren ala hirugarren mailan kokatuz gainera.

Baliteke ordea, orain arteko jukutria batzuekin bukatu behar izatea. Hain zuzen, 2021eko urtarrilaren 1az geroztik nekeago zaigu zaborrak munduaren beste puntara igortzea. OCDE Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Erakundetik kanpo diren herrietara “arriskutsu” gisa sailkatutako plastikoak zein “plastiko ez bereiziak” bidaltzea debekatua zaie Europako herriei. Hots, “munduko zaka-

rrontzi” gisa kontsideraturikoen hitza eta duintasuna eta, nola ez, osasuna eta ingurumena doi bat gehiago errespetatzen ditu urtarrilaren 1az geroztik Europar Batasunak.

Urte andana gabiltzala Asiako zein Afrikako herrietan gure zaborrak aurtikitzen –gordezka zabor toxikoenak plastiko birziklagarriari nahasiz, adibidez–. Txina ukan dugu luzaz plastikozko zaborren tratuko eragile nagusia: 1992az geroztik, mundu mailako zabor plastikoen %45a kudeatzen zuen, urtero 10 milioi tonaz emendatuz kopurua. Europatik, urtero birziklatu beharreko 8 milioi tonetatik 2,6 Txinara igortzen genituen. Baina ateak hetsi zituen Txinak 2018an, jasotzen zituen plastikoak nekez birziklagarriak zirelako eta ingurumenean eragindako kalteek horretara beharturik. Hots egunetik biharamunera, esportaturiko zaborren %40a esku artean zeukan Europak, AEBek berriz %20a zeukaten. Ahal bezain laster irtenbideak aurkitu behar izan zituzten –ulertu, helmuga berri batzuk lortu–, kontsumo frenetikoaren hankak plastiko artean ez kausitzeko gisan. Hastapen batean inguruko herrietara (Malaysia, Indonesia, Thailandia, eta beste) bideratu zituzten, laster hauek ere ateak hetsi ala erdi-hetsi arte: Malaysiak plastikoa inportatzeko baimenak eten zituen 2018ko urrian, Indonesiak aduana-kontrolak areagotu zituen urte bereko apirilean, eta Vietnamek indartu egin zuen edukiontzia uztan zituzten jabeen aurkako epaiketa. Turkia da gaur egun

Europako plastikozko zaborren lehen helmuga. Baina bertako Emine Ozkan politikari ekologistak errealitate gordina azaltzen dio *Reporterre* komunikabideari: “Ez daukagu birziklapena bideratzeko politikarik”. Hori horrela arazoa plazaratu nahian dabil Greenpeace: “Kanpotik jasotako zaborren zati bat ez da birziklatzen eta naturara botatzen da; errea ere da eta horrek ingurumena, zorua eta atmosfera kutsatzen ditu. Plastikozko zaborren inportazioa ez da birziklapenaren sinonimo”.

MUNDU MAILAKO IRUZURRA

Alta, neurri berriak errespetarazi nahi baldin baditu, mafia sareei begira jarri beharko zaie Europar Batasuna. 2018az geroztik, hondakin plastikoen legez kanpoko trafikoa lehertu egin da, iazko agorrilean Interpolek argitaratu txostenak dioenez. Azken urte hauetan inportazioak %330 hazi dira Malaysian, %300 Thailandian, %277 Vietnamen eta %165 Indian. Merkataritza-bide horien %40an legez kanpoko kargak aurkitu zituzten. Demagun, 2019an Indonesian sartzean ikuskatutako 1.095 edukiontzietatik 433 legez kanpokotzat jo zituzten. Toxikotasun handiko eta birziklagarri izaera gutiko zaborrak ziren hauen artean. Herri hauetako birziklatzeko azpiegitura ikusirik, are onartezinagoa da egoera: ia ez dute birziklatze prozesua bideratzeko azpiegiturarik. Hori horrela, erraustegietan erretzen edo zabortegi basatietan zein ozeano azpian metatzen dituzte.



PLASTIKOA, GEHIENETAN BIRZIKLATU GABEA

GAUR EGUN, MUNDU MAILAKO PLASTIKOZKO HONDAKINEN %9A BAKARRIK DA BIRZIKLATUA (NATIONAL GEOGRAPHIC KOMUNIKABIDEAREN DATUAK DIRA). HORI HORRELA, GEHIENGO HANDIA NATURAN UTZIA EDO ERREA DA.

Mediapart-ek plazaraturiko *La Bulgarie n'en peut plus d'être la poubelle de l'Europe* ("Bulgariak ezin du gehiago jasan Europako zikin-ontzi izatea") erreportajeak xeheki azaltzen digu Europaren baitan ere logika bera dela nagusi. "Europako herri aberatsetako zaborren *eldoradoa* da Bulgaria", kazetariaren hitzetan. Zarama eta ustelkeria eskuz esku dabilta, gobernuko goi-karguetaraino Bulgarian. Europar Batasunak helburutzat jarritako "plastikoaren ekonomia zirkularrak" itzal-guneak ere ditu beraz: Europaren baitan kudeaturik ditugu, baina bulgariarrak eta orokorki ekialdeko europarrak dabilta osasuna galduz faktura pagatzen... Hau guztia ikertzen ariturikoa da *Recyclage, le grand enfumage. Comment l'économie circulaire est devenue l'alibi du jetable* (Birziklapenaren ketze handia: nola ekonomia zirkularra botagarriaren alibia bihurtu

zaigun") liburua atera berri duen Flore Berlingen Zero Waste elkarteko militantea. Ondorioa argi du: zaborren gutitze helbururik gabeko birziklapen estrategia kontra-emankorra da. Enpresa handiek eta hauen lobbyek bideraturiko birziklapenaren "instrumentalizazioa" salatzen du: "Marketing modura erabilia izan daiteke, salmentarako argudio gisa erabiliz, azkenean oraindik gehiago erosteko gisan; *greenwashing* logika ere hor dago -jakirik bukaera ez dela birziklapenik-, kasu horretan lobbyen tresna bihurtzen da, erabili eta botatzeko joeraren kontrako neurriak saihesteko gisan".

Licensing effect edo baimentze efektua ere azaltzen du, Monic Sun eta Remi Trudel ikerlarien lanetan oinarriturik: "Eskura dugun baliabidea oraindik gehiago kontsumitzera bultzatzen gaitu birziklatzeko aukera dugula edo hondakina

birziklatu egingo dela jakiteak. Bestela esateko, birziklatzeko aukerak gehiegizko kontsumoa eragiten du". Ideia bera garatzen du *Homo Detritus* liburuaren egile den Baptiste Monsaingeonek: "Plastikoa ekonomia zirkularraren parte dela erranez, plastikoa 'zakarrontzi egokira' botaz 'ekintza ona' egiten ari garela pentsatzen da. Alta, promesa hau inoiz ez da bete; Parisen paperontzi horien %80a errausten da".

%100a birziklatua balitz ere, birziklapena ez litzateke soluzio magikoa: "Materiala edozein dela ere, birziklatze-prozesuak berak baliabideak kontsumitzen ditu, berotegi-efektuko gasak eta kutsadura ondorioztatzen ditu. Ez dut erran nahi ez dela birziklatu behar, baina kontuan hartu behar da prozesu hori ez dela guztiz neutroa ingurumenaren ikuspegitik", Berlingenen hitzetan. ●

ZINKUNEGI OPTIKA

Hemani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

f i

Domeka Elezkano

MEMORIAREN ZAINDARI BIZIA



ERRAZ HITZ EGITEN DA TABERNAN, ERRAZEGI



97 urte ditu. Espainiako gerra zibila baino lehen,
Agirre lehendakariaren mitina Bermeon. Gero, gerra.
Suzko bonbak eta mortero eta metraileta hotsa. Erbesteratzea.
Donibane Garaziko gotorlekuko gerrako haurren egonaldia.
Itzulera. Propaganda garraioa Donibane Lohizunetik Bilbora.
Jende garraioa Beratik Larrunera. Durangotik Galdakaora
bitarteko margotzea. Abertzale gogorra Elezkano.

 MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO

***“Lehengo aldean, orain gara gu /
abertzale txit epelak”, dio Joxe Austin
Arrietaren koplak...***

Bada, lehengo horietakoa nauzu ni! Kar, kar... Eta ni baino lehenagoko abertzale gogorretakoa, gure aita zena, Mateo Elezkano Bilbao. Euzko Langileen Alkartasuneko presidente izan zen Basaurin. Okina zen lanbidez, Ariz auzoan. Ama Bengoetxen jaio zen, Galdakaon. Dionisia Ibarretxe Etxebarria zuen izena. Gure gurasoek euskaraz egiten zioten bata besteari, eta guk ere ikasi genuen. Bateko eta besteko, nik bidean galdu nuen euskara, baina nire arrebek ez, haiek euskaraz egin izan zuten hazi eta gero ere. Mutikotan, aitzak Jose Antonio Agirrerren mitin batera eramanez ninduen

Bermeora, eta akordatzeko naiz hartan txalo zarta ikaragarriak jo zizkiotela Agirrerri.

13 urte zenituen gerra sartu zenean.

Kaos hutsa izan zen hura! Jendearen gosea eta! Gu dotore, hala ere, ortu handi bat geneukan-eta, eta nahiko aza, letxuga, tomate, piper eta leka eduki genuen. Oiloak ere bageneuzkan, eta, hortaz, arrautzak ere bai. Behar izanez gero, oiloren bat akabatzen zuen amak, eta lapikora! Eta oiloa ez zenean, untzia! Bestalde, aita okina zenez, ogirik eta irinik ez zen gurean sekula falta izan. Tira, batzuetan falta izaten zen, amari ogi eske etortzen zitzaizkiolako auzoak, eta, Dionisia defuntua ezin eskuzabalagoa ze-

nez, dena banatzen zuelako. Behin baino gehiagotan batere ogirik gabe etsi behar izan genuen etxean. Orduan, dena den, amak, hartu irina eta taloa egiten zuen, guk gosea hiltzeko.

1936, Espainiako gerra Basaurin.

Akordatzeko naiz babesleku bat egin zutela Arizko zubipean, baina ez aita ez ni sartu ginen inoiz hara: gu ortuan beti, lanean. Suzko bonbak ere bota izan zituzten inoiz, ondoko ortuetan erortzen ziren bonbak, baina gu geure ortuan! Egun batean, aita eta biok Arizko okindegian geundela, irin zakuen artean lanean orduan ere, gudarietako kapitain bat azaldu zen, esanez Arizko zubia lehertzerazihoazela, nazionalak Urbira heltzen



Domeka Elezkano Ibarretxe

BASAURI, 1923



Herriko Ariz auzoan ezagutu zituen gerra eta erbesteratzea. Gerrako haur nagusietakoa izan zen, eta, gero, erresistentziako kide. Gazterik ekin zion hormak margotzeari, eta laster ehizatu zuten EAJren erresistentzia ekintzen buru Mikel Isasi eta Joseba Rezolak. 1964an, inoizko margotzerik handiena egin zuen, hiru kiderekin batera, Durangon hasi eta Galdakaoraino. Harrapatu zituzten, baina ez zuten haien sua apaldu. Abertzale gogor jardun du beti Elezkanok.

ari zirela. Eta Urbi eta hurrena, Ariz zegoen. Handik lekutu behar gine-la, gudarietako kapitainak. Orduan, okindegian lan egiten zuen Ojenbarrena izeneko batek, orroka: “Baina nik Urbin daukat familia dena!”. Eta kapitainak: “Bada, oraintxe da garaia. Hemendik irten nahi dena, irten dadila oraintxe bertan”. Izututa geunden denok, hegazkinen eta metraileten zarata ikagarria zen, arratsaldeko seiak-edo izango ziren, eguzkitan gal-gal ginen. Ojenbarrena ez zen zirristi-zarrasta ibili, familiaren ondora joango zela erabakita zegoen. Harekin batera irten ginen gu, gura-soak eta bost anai-arrebok! Hura zen tiro eta mortero zaparrada! Eta hango hegazkinen zarata, lur arrasean!

Nora ihes egin zenuten?

Ahal zen urrunena, nazionalak ez zeuden alderdira. Lehenengo, Arrigorriagara, handik Bilbora, Portugaleteko zubi esekiaren geltokira hurrena... Bi gau egin genituen Portugaleteko zubian, batere irten gabe, ahal zena jenez. Aitak esan zuen arte: “Hau ez da atarramendua! Irten hemendik, eta segi Santander aldera. Albait lehen joango naiz zuen atzetik”. Abiatu ginen eta, kaminoan, kamioi bat gelditu zitzaigun. Eibarko sozialistak ziren, Arizen okindegi ondoan kanpatuta egondakoak, eta ezagutu egin gintuzten. Laredoraino eraman gintuzten, komentu batera-edo. Euskaldunetz beteta zegoen! Hamabost edo hogeia egun egon ginen han, aitaren berririk batere gabe.

Ebakuatu zintuzteten arte.

Euzko Jaurilaritzaren ordezkariak etorri ziren eta horixe esan ziguten, ebakuatu egingo gintuztela. Baina gu sei ginen, eta bost anai-arrebak, eta ezin gintuztela denok batera eraman esan ziguten. Horrela, hiru anaiok alde batetik, eta ama gure bi arrebekin, bestetik. Gu Santanderreko portura eraman gintuzten, Molton ingeles ikatzontzian sartu eta Bordelera! Erbestera gindoazen! Familiak, emakumeak, haurrak zihoazen han. Itsaso zabalean Cervera espainiar gerraontziak geldiarazi gintuen. Hura izua!

Cerverako batzuk gure ontzira etorri, barkua arakatu, eta libre joaten utzi ziguten. Akordatzen naiz Bordelen jaitsi ginenean gazta, txokolatea... eman zizkigutela jaten. Hura gosea! Handik, Donibane Garaziko gotorlekura eraman gintuzten.

Gerrako haurrak izan zineten...

Bai. Gaez heldu ginen Garazira. Jaurilaritzak prest zeukan dena. Biluzarazi gintuzten, garbitu, eta bestelako janzteko batzuk eman zizkiguten. Eta adinaren arabera banatu gintuzten.

Ni, handienekin jarri ninduten. Pe-laio Bernedo izan nuen han irakasle, edo arduradun.

Ondarrutarra zen, Sabino [Arana Goiri] bera baino abertzaleagoa. Nire anaiak, han, Karmen Zunzunegik begiratu zituen. Bizente Amezaga zen zuzendari. Haren anaia Modesto ere hantxe zegoen, irakasle. Eta Diego Eraso, nafarra, oso irakasle ona.

Eta Fortunato Goizueta abadea ere bai, Begoñako parroko izandakoa. Oso ondo zaindu gintuzten. Lekeitioko eta Bermeoko etxekoandre eta sukaldariak bikainak ziren. Goxo jaten genuen, eta halaxe gizendu ginen denok! Kar, kar... Beste zera bat ere bai: alde batera, euskaldunak jarri gintuzten; bestera, erdaldunak.

Noiz arte izan zineten Donibane Garaziko gotorlekuan?

Nik ez nituen bi urte ere egin han. Nire anaiek, bi eta koska. Amak zortziren bat hilabete egin zituen Akizen, gure arrebekin. Zera ere jakin genuen, alegia, gure aita Karrantzara heldu eta gero, Basaurira itzuli zela, eta, han, harrapatu eta kartzelara sartu zutela, Euzko Langileetakoa izan zelako. “Ardura politikoak” leporatu zitoten. Ez zuen zuloan luze jo, zenbait herri-tarrek gure aitaren alde fede eman zutelako; herriko parroko Zesareo Urgoitik, besteak beste. Hala ere, 10.000 pezetako isuna jaso zuen. Okina zen Arizen, ez zuten garai bateko okindegian hartu nahi izan, baina bai beste batean Galdakaon, Rikardo Goiarrolarenean, eta, gero, Basauriko Pozokoe-txe kaleko La Basconian, Fernández eta Goikuriaren okindegian.



1939an, gerra amaitzean, Francoren gobernu gerrako haurrak itzularazten saiatu zen.

Gure aita gu erreklamatzera behartu zuten, eta gure ama eta gure arrebak Basaurira itzuli ziren. Guk, hiru anaiok Garazin, ezetz, ez ginela itzuliko erabaki genuen. Hala ere, ikasketa handiagoak egiteko aukeratu ninduten beste zenbait kiderekin batera, eta Ziburura joanarazi zidaten, Anchochuri ostatura. Ikastetxe bihurtua zuten eta hantxe izan ginen, Basaurira itzuli ginen arte. 15 urte nituen, ez nuen gehiago ikasteko asmorik, eta lanean hasi nintzen, Firestonen, soldadutzara joan arte. Itzuli nintzenean, garai bateko lagunekin bat egin, eta saltsan sartu ginen.

Zein saltsatan? Zer esan nahi duzu?

Euzko Gaztetxukoak izanak ginela gerra aurrean, abertzale peto-peto ziren jendea ere ezagutzen genuela, mendira joaten hasi ginela eta, horrela, inork agindu gabe, hormak margotzeari lotu gintzaizkiola. Batean, *Gora Euzkadi Azkatuta* ipiniko genuen. Bestean, *JEL*. Hamaiaka horrelako! Eta, badiotsut, inork agindu gabe, geure gogo, ilusio eta amorruz. Hurrena, lagun egin ginen alderdiko jendearekin. Esate baterako, Andoni Sopelanaren lagun egin ginen. Basauriko Artagan mendizale klubaren presidenten Andoni, eta abertzale gogorra! Iku-si gintuen, batzuk hobetsi zituen, eta Ezpeletara eraman gintuen, txangoan. Han, Bilbao izeneko, edo ezizeneko ba-

tek, aberriaz hitz egin zigun, Euskadiren alde borrokatu behar genuela esanez.

Hautatuetakoa izan zinen, hortaz.

Bai, nonbait. Luis Mari Alvarez, Juan As-tigarraga, Jose Luis Perez Iriarte... Zenbaitzuk. Hala ere, itzuli ginenean, Andonik esan zidana: "Ez dago alderdia zeuk beste sentitzen duenik. Beste lagun bat aurkeztuko dizut, eta hark isilpean egitekorik aginduko dizu". Luki Artetxe zen, EAJren burukideetakoa. "Oraingo, ezta zirkinik ere. Jakinaraziko dizugu garaia heltzen denean", esan zidan Lukik. Esan eta egin. Handik hilabetera, Ziburura joanarazi zidan, Mikel Isasirengana. Beste burukide bat! Mikelek [Isasi] Donibane Lohizunera eraman ninduen, Joseba Rezolaren etxera. Alderdiaren presidenteordea! "Zure egitekoa guztiz da isilpekoa, sekretua. Inork ez du jakin behar, ezta zure familiak ere". Zer izango nire egiteko hura, eta 'paperak' Bilbora ekartzea.

Propaganda.

Dokumentuak, nonbait ere. Isilpeko agiriak. Baina nik ez nekien. Jaso behar zena jaso, Bilbora ekarri, eta beste batek jasotzen zizkidan, nire tailerrera etorritak. Goizean goizago irteten nintzen Bilbotik Donibanera [Lohizune], eta atzera Bilbon nintzen eguerdia orduko. Karpetak batzuk ematen zizkidaten, bizkarrean jartzen nituen, eta etortzen nintzen. Inoiz ez nuen pentsatu ere egin material hura autoan ezkutatzea. Bazitekeen



KARTZELA ZIGORRA

"1965ean, Ordena Publikoko Auzitegira eraman gintuzten hiru atxilotuok, margotzeengatik. Nire abokatu Jaime Miralles harrigarri mintzatu zen: gure borrokaz, anti-frankismoaz, gure eskubide historikoez. Nire absoluzioa eskatu zuen, ekintza hura haurkeria hutsa izan zela argudiatuz, epaiketa hura fartsa hutsa zela esanez... Ni, harri eta zur, asto beltzarenak eta bi esan zizkion-eta auzitegiari, eta besteak isilik! Azkenean, urtebeteko kartzela zigorra eta hamabost mila pezetako isuna ezarri zidaten. Lagunak, libre".

G.E.A.

"1967ko Aberri Eguna Iruñean izan zen. Igandea baino lehen, ostira-lean goizean goizago Bilbotik irten eta Herniora joan ginen. Tontorrera umore onean igo, "Gora Euskadi!"-ka eta beste, mendizale txartela buzoian sartu eta beherantz. Eta han non azaltzen zaizkigun guardia zibil batzuk, ea zertan genbiltzan, orroka. Gu, Hernio tontorretik gentozela. Galdera eta galdera, hantxe eduki gintuzten, haietako bi tontorrera igo, buzoian begiratu eta gure txartelak hartu artean. Guk txartelean *G.E.A.* jartzeko ohitura genuen, *Gora Euskadi Askatuta*", alegia, baina guardia zibilek galdetu zigutenean, "Grupo Espeleólogo Alpino" esan nahi zuela esan genien. Eta haiek sinetsi!".

ETA-KOAK

"1969an, kaleko borroka bor-bor zegoen, lehergaiak, molotov koktelak... ETako gazte bizargabe asko harrapatu zituen poliziak. Fragak salbuespen egoera ezarri zuen Euskadin. Ni, berriz, kartzelara, margotzeen zigorra betetzera. Basaurira sartu eta Txomin Ziluagak hartu ninduen. Laster, ETako buruzagiak aurkeztu zizkidan: Edu Uriarte, Mario Onaindia, Xabier Larena, Andoni Arrizabalaga... Diziiplina handikoak ziren: gimnasia, euskara eskolak, ikasketak, politika eztabaidak...".

niri autoa zelatatzea eta material sekretu hura harrapatzea. Karpetak ekartzen hasi nintzen eta, hurrena, jendea beste aldera igarotzen ibili nintzen.

Jendea Ipar Euskal Herrira eramaten ere jardun zenuen?

Bai, bada! Bilboko Artagan mendizale klubekoa nintzen, etxeko ezkaratza bezain ondo ezagutzen nuen mendialde hura! Berara joaten nintzen, eta handik, batera eta bestera laguntzen nion jendeari. Jende asko ibili nuen. Etxean inork ez zuen ezer jakin behar, eta ez zekiten, baina susmo galanta zuten! Inoiz, esan izan nien: "Txango txiki bat egin behar dugu domekan Donibane Lohizunera". Eta joaten ginen, eta, han: "Zera, adiskide bat agurtzera noa, baina laster naiz zuekin berriz ere". Hartu behar nuen materiala hartu, familiarekin beste pixka batean ibili han, eta etxera. Hala ere, kontu handiz ibiltzen nintzen. Inork ez zuen ezer jakin behar.

Kontu handiz ibiliagatik ere, noizbait harrapatu zintuzteten.

Bai. Egun batean, Mikel Isasik: "Egiteko bat dugu zuretzat. Joseba Rezolak eta biok gauza aztertu dugu, eta ez dakigu

egiteko modurik izango duzun". Propaganda ekintza handi bat egin nahi zuten, Durangotik Galdakaoraino. Gu zenbait margotze eginda geunden, baina egin nahi zutena lan handia zen. Gu lau lagun ginen, Jose Antonio Isasi, Juan Astigarraga, Sagardui eta laurok. Haiei galdetu, eta baietz, egingo genuela. Jakinarazi ziguten poliziak goizeko ordu bietatik hiruretara egiten zuela zaintza erronda, eta haiek igaro baino lehen egingo genuela erabaki genuen. Hala ere, Isasik eta Rezolak agindu zidaten margotzeko eguna: irailak 20 [1964].

Nola gauzatu zenuten ekintza hura? Durangotik Galdakaora bada hormarik asko.

Nik baino hobeto ezin jakin zuk! Kar, kar... Gauerdian, lurretan genuen hitzordua. Elkartu orduko hasi ginen han eta hemen margotzen. Hura lixiba! Nik ez nuen ezer margotu, ni beti autoan: lagunak jaisten ziren, margotzen zuten, sartzen ziren berriz ere autoan, eta aire! Nire anaia txikiak tailer bat zuen Zornotzan, fatxada margotu berria. Erruki gabe margotu genuen hura ere, baina geure erara! Kar, kar... Anaiak ez zekien ni saltsan sartuta nengoela. Arrakasta

itzela! Gudari aldizkarian ere atera zuten. Handik hamar egunera, orde, bila etorri zitzaidan guardia zibila. Eta La Salveko kuarterelara. Nik, lehenengo, ezer ez nekiela. Gero, Juan Astigarraga atxilotuta zeukatela jakin nuenean, egia aitortu nien, neu nintzela arduraduna, eta uzteko nire kideak bakean. Alferrik, jakina. Gaitz erdi, ez zuten [Jose Antonio] Isasi harrapatu.

Nola jakin zuten zuek izan zinetela?

Txorakeria bat, txorakeria handi bat! Jendeak ez zuen margotzeaz baizik hitz egiten Basaurin eta denean. Hasteko, Basauriko tabernetan huraxe izan zen berriketa gaia: guk egindako margotze handi hura. Eta, itxura dagoenez, Bizkargi tabernan, gure kuadrilaren taberna kuttunetakoan, behar baino gehiago hitz egin zuen gure lagunetako batek. Eta hortik etorri zen okerra. Erraz hitz egiten da tabernan, errazegi, eta zulora sartu gintuzten. Larrinagako kartzelan eduki ninduten! Hura txerrikorta! Gero, Basaurikoan, baina ez luzaro, abokatuak lan handia egin zuen eta. Dena dela, jira eta buelta, 1969 arte ez zuten nire kasua itxi. Bitartean, jira eta buelta ibili ninduen poliziak... ●





GIPUZKOAKO ESKOLA TXIKIAK

eskola herri eta auzo txikiak bizirik!

ABALTZISKETA	ALTEO	EZKIO-ITSASO	OIKIA
ADUNA	ANGIOZAR	GABIRI	OLABERRIA
AGIÑA	ARROA	IGELDO	ZERRAIN
AIZARNA	BERROBI	IKAZTEGIETA	ZIZURKIL
AIZARNAZABAL	BIDANIA-GOITATZ	ITSASONDO	ZUBIETA
ALBIETUR	EREÑOZU	LARRAUL	
ALKIZA	ERREZIL	LIZARTZA	



www.eskolatxikiak.eus



Langile txiro nahi gaituzte



**ENDIKA ALABORT
AMUNDARAIN**
EKONOMIALARIA

Lanaren bitartez bizitza duin bat izatea posible da? Herrialde batek bere burua garatutzat hartzen badu, erantzuna agerikoa da: posible eta premiazkoa izan beharko litzateke. Hala dio Europako Gutun Sozialaren 4. artikulua, onartzen baitu langileek ordainsari nahikoa jasotzeko eskubidea dutela, langileei eta haien familiei bizi-maila egokia emateko. Europako Kontseiluko Eskubide Sozialen Batzordeak proposatutako definizioaren arabera, soldata “nahikoa” batez besteko soldata garbiaren %60 da, gutxienez. Euskal Herri penintsularren kasuan, kopuru hori gutxi gora behera 1.200 eurotan zehaztu da.

Hegoaldeko lau lurraldeetan gutxieneko soldata 950 eurotar mugatu da, Europako Gutun Sozialak ezartzen duen kopurutik urrun. Gutxieneko soldata hori ez igotzeko, patronalek “lanaren produktibitatea” aipatu dute, honi lotu behar zaiola; baita akordioaren bitartez egin behar dela ere, abenduaren amaieran Confedebaskeko buru den Zubiaurrek esan zuenez. Berezia da patronalen jarrrera, gauza batzuentzako akordioaren beharra baitago, akordioaren definizioa beren onespina denean. Beste enpresari batzuek aipatu dute gutxieneko soldataren igoerekin ezin izango dutela lanpostu askorik mantendu. Enpresari jaun-anderea: irabaziak handitzeko miseriazko soldatak ordaindu behar badira, agian negoziak ez da errentagarria. Ez eko-

Enplegu bat izanda,
ezin da onartu
pobreziatik ezin
irtetea. Lan erreformek
langile txiroen kopurua
izugarri handitu dute

nomikoki, ezta sozialki ere. Ezin dugu ahaztu langile asko ez direla gutxieneko soldatara iristen ere, behartuta lan jardunaldi murriztagoak egiten baitituzte, astean 15, 20, 25 ordu lan eginez. Azpimarratzekoa gehienak emakumeak direla. Horrez gain, nabarmentzekoa da lana produktibitatearen arabera ordaintzea esplotazioa handitzeko eta soldata are prekarioagoa bihurtzeko tresna dela.

Aldi berean, pandemiak argi utzi du zeintzuk diren ezinbesteko enplegu eta lanak: garbitzaileak, osasun arlokoak, prekarizatutako zerbitzuak, zaintzak... Zaintza barik ez baita posible gure ekonomiak funtzionatzea. Lan hauek egiten ez badira, akabo edozein enpresaren jardura; baina, edo ez dira ordaintzen (zaintzak), edo soldata baxuena dutenen artean daude (garbitzaileak, telefono operadoreak, dendetako langileak, eta abar). Pandemian agerian geratu den lo-

gika erabiliz, goi karguek zenbat kobratu beharko lukete? Eta ezinbestekoak diren lan hauetan dihardutenek?

Enplegu bat izanda, ezin da onartu pobreziatik ezin irtetea. Lan erreformek langile txiroen kopurua izugarri handitu dute: enplegu prekarioak, edozein momentutan oso merke kaleratzeko arriskuarekin eta askotan lan jardunaldi ez osoan. Horrelako bi soldatekin, agian hilabete amaierara eskas helduko gara, handitzen doan alokairua ordaindu ostean. Ezin duguna onartu da lan egin eta pobreziara kondenatuta egotea.

Baina enpresari asko honekin oso pozik daude, lehen bost pertsonak egiten zuten lana orain bik egiten baitute, aurreko soldata bera jasotzen. Langabeziaren beldurra leku guztietara zabaldu da, agerian dagoelako behin behineko enplegu erregulazio espedienteen ostean, askotan kaleratze kolektiboak helduko direla, kaleratzea oso merke baita. Horregatik da hain handia patronalen erresistentzia gutxieneko soldata handitzea aipatzen denean.

Lan egiten duen pertsona bat ezin dugu miseriara kondenatu. Enpresa eredu nagusiak eta gure gizarte ereduak hori egiten du, tamalez. Ez dago inor salbu: langilea bazara, etorkizuneko langile txiroa izateko aukera gero eta handiagoa daukazu. Horregatik gutxieneko soldata duinen beharra. Bizitza duin bat izateko gutxieneko elementua baita. ●

Urte berriaren atarian



KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE
LITERATUR ZALEA

2020 urtea joan, 2021 urtea jin. Denek bezala, ingurukoei opatu diet aitzineko urtea baino hobeagoa izan dakiela berria, osasun onarekin bereziki, nola ez. Alta, mundua norabide galgarritarantz abiatua dela ezin uka. Beroketa klimatikoa eta migrazio behartuen arazo nagusiez gain, askatasuna murriztu zaigu: multinazionalak zein botere publikoek hiritarrak oro fitxatzeaz gaituzte; orain arte baino zailago dateke gero hurbilean biltzea, elkarteak sortzea, militantzia soziopolitikoan hastea edo irautea, legedi berriek zerraturik bezala baikaituzte; lan baldintzak nehoiz baino gehiago okertu zaizkigu, bai alor pribatua, bai sail publikoan –lanean jarraitu ahal dugun pribilegiatuoi–; jendetasunezko harremanak hormatu dira, arroz-tua dugu erabat elkar agurtzeko musua, besarkada edo bortzekoa; konfiantzarik ez dago gehiago agintariengan; ekonomia erreala beheko errekarantz abiatua da, ziztu bizian, baina ekonomia birtuala sekulako fleitean dago; laurogeita hamar urteko aitaxi-amatxiak txertatuko dira, baina etorkin gazte-gazteak ehunka hiltzera uzten dira itsasoan. Herri aberatsetan, bakoitza kiribildurik gabiltza gure eguneroko hitsean, iraupen pertsonala

helmuga. Osasun fisiko, mental eta afektiboa itsutzen duen izu orokorra muineraino sartua du gehiengoak.

Zenbaitzuek pentsatua zuten izurri aitzineko “anormaltasunera” ez ginela itzuliko, “normalitate” berria, ekologikoa eta zuzena, asmatuko genuela hetsaldi garaian. Ordu arte guti adituak ziren ahots itxaropentsuak oihu ozen bilakatu ziren. Baina badirudi inoiz baino anormalagoa dugula oraina, lehenagoko anormaltasuna baino anormalagoa ere, eta etorkizunerako zaila izanen dela zentzuzko normak eraikitzea. Jainkoaren ondotik, ideologiak isildu eta hil dira: engoitik, nork noiz non nolako normak ezar litezake xutik? Hersturetan gaude, itsumandoka, erori artean behaztopatuz noraezean ari, pantailei zozoki kateatuak.

Zertan ezarri esperantza, beraz, aurtent? Lehenik, ahal dugun neurrian, bizitzaren gozamenen. Gizarte izoztu eta gaiztotuaren uretan gurutzatu atseden, goxotasun, elkar-ulertze edo maitasuneko uhartetxoetan geldialdi salbagarriak preza ditzakegu; goza ditzakegu lehenago baino kartsukiago adiskide, familia, haur, bikote-kidea eta auzoekin pasatu une iheskorrak; plazer sakonarekin libra ditzakegu irriak eta zirtoak; ozenkiago

adieraz ditzakegu gorputzaren goseak eta izpirituaren egarriak.

Gero, etsipen guziak gaindituz, adostu genezake, gure baitan eta kolektiboki, transmititu nahi dioguna gazteriari, eta transmititu nahi ez dioguna, uros, argi eta aske haz dadin; indarrak eman ditzakegu transmisio hori baikorra eta alaia izan dadin.

Bestalde, elkartasunezko ekitalditan parte har dezakegu, auzoan edo herrian, mundua aldatu ezinean gure ingurua berderen hobetzen saiatuz.

Azkenik, izadiak eta arteak eskaini edertasuna eta norabide e(ste)tikoa ikusten jakin dezakegu, arima eta bihotz altxagarri.

Dudarik gabe, aurtent pobrezia hedatuko da, iritziak muturretara joanen, gerra giroa zabalduko; segurki, aldizkatuko dira bakoitzarengan ernegu eta oldartze momentuak, umore zinikoa eta hitz errabiatuak, negar zotinak eta barre karkailak. Asmotzat har dezagun, bada, gora-beheren artetik irautea bizirik, bakoitza etxean berekoiki ez baina kanpoan elkarrekin, handikien komedia hilkorrak jasane beharrean irudimenak, zentzu onak, kontzientziak eta bihotzak gomendatua ekintza bihurtuz. ●



PAULA ESTÉVEZ

Motor zaharrarekin ari gara



**ARKAITZ ZARRAGA
AZUMENDI**
EUSKARA
IRAKASLEA

Hizkuntza biziberritze prozesu bakoitzak bere ezaugarriak ditu. Hizkuntzak duen egoera, herritarren ezaugarriak eta herri bakoitzaren ezaugarri kulturalak kontuan hartuta jardun behar da kasu bakoitzean. Tresa, neurri eta ekimenekin asmatuz gero hizkuntzak aurrera egingo du. Gerora, egoerak aldatzen diren neurrian, baliabideak, estrategiak, jomugak... egokituz joan beharko dira. Hala ere, badira prozesu guztietan funtsezkoak diren tresnak: murgiltze eskolak, helduen eskolak, kultur sorkuntza, komunikabideak...

Kolonbiako Cauca eskualdeko Nasa herriarekin helduen eskolen inguruan egindako ibilbidean zerbait azpimarratu badugu, zera da: helduen eskolak biziberritze prozesuaren motor garrantzitsuenetakoa izan behar dira. Hiztunak sortu behar dituzte, kultur sorkuntzaren erabiltzaile eta sustatzaileak izan, hizkuntza arlo guztietara hedatzen lagundu eta, batez ere, atxikimendu sortzaileak izan behar dira.

Motor horren piezak izango dira irakasle prestatu eta gogotsuak, metodologia egokia, material eta teknika didaktiko egokiak, baliabideak... Baina, gainera, motorraren pieza guztiak modu koordinatuan aritu behar dira, lanari etekin handiena ateratzeko.

Askotan galdetzen digute guk handik

zer dugun ikasteko, eta aurrekoan zutabetxo honetan azaldu nuen bezala, asko eta sakonak dira hango ikasgaiak. Baina, gainera, ispilu bat ere jartzen digute aurrean, predikatzen dugun hori gurean nola dagoen galdetuta. Tira, bada, gurean, helduen eskolei dagokienez behinik behin, diesel motor zaharrarekin ari garela aitortu behar diegu. Garai batean puntakoa izan zen, baina gaur egunerako zaharkituta dago.

Bestelako diagnostiko batzuk heldu bitartean, gure piezei begiratuta, argi dago irakasleak ez daudela garai batean bezain motibatuta. Datozen 10 urteetan erdiak baino gehiago jubilatuko dira, baina erreleborik ez dago. Euskaltegiak ez dira erakargarriak lanerako eta gazte gutxi ikusten dute euren burua euskara helduei irakasten. Curriculum ederra dugu, baina goitik behera eginikoa, eta berariazko formakuntza planik ez da egon; ondorioz, ez dugu aplikatzen. Materialak ere ez dira sortzen; ez, behintzat, curriculumari egokitutako materialak. Azterketek gehiegizko pisua hartzen dute ikas-prozesuan eta, ondorioz, tituluak sortzen ditugu, ez hiztunak. Bai, egia da batzuk hiztun bihurtzen direla, baina...

Diesel motor honek behintzat, eraldaketa behar du, garaia eskatzen digun motor garbi eta eraginkorra bihurtzerainokoa. ●

K O



ITXARO BORDA
IDAZLEA

CCOVID-19 pandemia garai betean, *dark web*-aren burbuiletan Qanon kideek eta *hipster* bizarrekiko supremazista zuriek aspaldian mamitu oldarraren irudiak ikusi ditugu *NBC* katean, Trump presidentea zutela buru, Kapitolioa eraso eta menderatzeko bidean. Estatu kolpe klasiko baten gidoiaren urratsak zirela ezin uka, Ipar Amerikarrek beraiek hainbat aldiz, munduan zehar eragin *putsch* delakoenak hain zuzen ere. 1973ko Txileko Monetako palazioaren atake latzaz oroitu nintzen...

Boterera bortizki helduriko Zinbaweko buruzagiak ohar batean erran zuten Estatu Batuek ez zutela gehiago

demokrazia irakaspenik egiteko eta diktadoreak kritikatzeko eskubiderik. Estatu Batuen itzala zimeldu da, azken lau urteetan Trumpen inspiratu balentriari esker. Ez da seinale ona. Beste ezezaguna Kapitolioko poliziaren ingurukoa da: zergatik hain ahul agertu zen *rioters* horien aitzinean? Black Lives Matter mugimendukoak kongresuan sartzen saiatu balira, iragan udan, zer gertatuko zen?

Berak sustatu ekintzatik lekora, Trump eskandalizatua agertu da eta Bidenen garaipena onartu arren, uste du beti historiako presidenterik handiena izan dela. ●

Epaileen bedeinkatzea



PAULINE GUELLE
ZUZENBIDE PUBLIKOAN
DOKTOREGAI ETA IRAKASLEA

Borroka judiziala eramatean, helburu nagusi bat duzu: epailearen onarpena lortzea. Iratxe Sorzabal Díazen estradizio kasuan, duela zombait aste lortu zuten. Lortu zuten epaileek Espainiar estatuak galdegindako estradizio eskaera bat deuseztatzea. Orotara, Sorzabalek lau euroagindu zituen: bat deuseztatu zen baina beste hiruak lehenago onartuak izan ziren epaileen-gandik. Euskal presoak frantses estatuko presondegietan atxikitzen dute. Hala ere, Espainiak bere estradizioa galdegiten du, iberiar penintsulan leporatzen dizkioten egitateak epaitzeko.

Euskal gatazkari lotutako kasuetan, ez da ohikoa euroagindu baten errefusua. Orduan, zertarako Espainiako euroagindua onartezina bilakatu ote zen frantses epailearentzat? Lehenik, pentsa daiteke Sorzabalen torturen frogak erakutsi zutela Espainiako justiziaren eskutan bere burua ez zela babestua izan. Alabaina, presoak Istanbulgo Protokoloa bete zuen bere torturen sinisgarritasuna baieztatzeko. Nazioarteko gidaliburu horrek hainbat adituren bidez egindako analisi bat eskaintzen du. Hainbat arlotako medikuek txostena

Abokatuek frogatu
zuten Sorzabalen
aitorpenak torturapean
eginak izan zirela.
Horregatik, epaileak
Espainiak eskatutako
azken euroagindua
errefusatu zuen

sortzen dute pazientearen adierazpenak segurtatzeko. Sorzabalen kasuan, lehenbiziko euroaginduak onartuak izan baziren ere, epaileek ez zuten torturarena baztertu. Aitzineko eskaeran, epaileak Sorzabalen tortura salaketak onartu bazituen ere, ez zuen argumentu hau atxiki presoaren estradizioa errefusatzeko. Bigarrenik, presoaren abokatuek frogatu zuten Sorzabalen aitorpenak torturapean eginak izan zirela. Horregatik, epaileak Espainiak eskatutako azken euroagindua errefusatu zuen.

Epailearen erabaki hau aurrekari bat da. Hemen, epaile frantses batek deuseztatu du Espainiako auzitegi baten eskaera. Horrek erakusten digu Justizia sistemaren konfigurazio horretan, epaileak jaun eta jabe jarraitzen duela. Azken euroagindu hori deuseztatze-ko abokatuen lana erabakigarria izan da. Bi berrikuntza ditugu hemen: Istanbulgo Protokoloaren erabilpena, eta aitorpenen eta torturen arteko loturen frogatzea. Aldiz, epaileen erabakiek ondoko kasuen gain eragina ukaiten ahal dutenez ez da errana. Torturaren egiaztatze eta frogatze lana, EAEn, partez egin da. Francisco Etxeberriak zuzendutako txostenaren arabera 4.000 tortura kasu baino gehiago zenbatu ziren 1960 eta 2014 urteen artean.

Baina, orain zer? Defentsa judizial indibidualizatua laguntzeko, defentsa kolektiboa eraiki behar genuke. Alde batetik, Euskal Herri osoko kasuen azterketa (Euskal Memoria fundazioak egindako lanean oinarrituz) eta, bestaldetik, estatuek eragindako bortizkeriaren aitorpena beharrezkoa lirateke. Ondorioz, biktimen errekonozimendua eta erreparazioa lor genezake. ●



OPARITU ARGIA

ZAINDU NAHI DUZUN HORRI

Puska dezagun izotza



Oharretan adierazi
oparia dela eta urtarriletik
aurrera hasiko gara
aldizkariak bidaltzen.

EUSKARA MUGIMENDU FEMINISTAN

Erdaldunek euskal komunitatea aitor dezaten lanean

Feminismoak generoaz gain bestelako zapalketak mahai gainean jarri eta ahizpatasunaren bidea jorratzea aldarrikatzen du, jakinda bidea gatazkatsua dela. Mapa horretan non eta nola kokatzen da gure hizkuntzaren eta kulturaren aurkako zapalketa?

Mariluz Estebanek, Saioa Iraolak eta Elurre Iriartek euskara feminismoan zertan den eta aurrera begira zein pauso eman beharko liratekeen aztertut dute *Euskara eta feminismoa bidelagun* jardunaldietan. Emakundek eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak antolatu zituzten saioak.

 ONINTZA IRURETA AZKUNE
 DANI BLANCO

Euskalgintzaren eta feminismoaren arteko zubiak saioan aritu ziren Mariluz Esteban (Gizarte-antropologia irakaslea EHUn eta mugimendu feministako kidea), Saioa Iraola (Euskal Herriko Bilgune Feministako kidea) eta Elurre Iriarte (kultur eragilea eta mugimendu feministako kidea Baztanen).

Ondoko lerroetan hiru solaskideen hausnarketan laburpenak jaso ditugu beraien ahotan.





Saioa Iraolak gogorarazi du nola batzuek kezkatuta adierazi duten azken bi urteetako M8ko manifestazioetan, Bilbokoetan zehazki, giro erdalduna nabari izan dela: "Manifestazioa biltzen den jende saldoa egunerokoan euskalduna ez bada, mugimenduak zein ahalegin egin behar du? Gure ardura ez da (gaitasunik ere ez dugu) feminista guztiak euskalduntzea, baina aldiz, gure aukeren barruan dago bertaratutako feminista ez euskaldunek euskararekiko, euskal komunitatearekiko eta Euskal Herrian dauden feminismoekiko begirunea eta aitortza izatea".



“Teoria dekolonialak zabaldu behar dira, hizkuntzaren gaia sar dezagun”

MARILUZ ESTEBAN GALARZA

Euskal Herriko feminismoan, eta euskararen inguruan zehazki, zein teoria eta praktika behar ditugu aniztasuna eta gizarte desberdintasunak aintzat hartuta, era berean hemen errotutako feminismoa egiteko? Bide horretan kontuan hartu beharreko, eta labur eta pobre geratu zaizkigun, bi hitz landu nahiko nituzke.

Aniztasuna: Zertaz ari gara aniztasunaz ari garenean? Orokorrean, migrazioaz, etniaz eta jatorri kulturalaz edo geografikoaz ari gara. Bigarren mailan gelditzen dira adina, klase soziala, hizkuntza, ideologia, sexualitatea, erlijioa eta abar. Horrek, beste ondorio batzuen artean, ekartzen du hemengoak eta kanpoak, gu eta besteak bezalako dikotomiak iraunaraztea. Pentsatu behar dugu feminismoan, baina baita euskararen gaian ere, aniztasuna nola kudeatu nahi dugun.

Feminismoak beti egin duena egin

beharko genuke: transbertsalitatea bilatu, alegia feminismoa edonon sartu, eta era berean, espezifikotasuna lortu, hau da momentu batzuetan espazio eta denbora propioak aurkitu. Aniztasunarekin antzeko zerbait egin beharko genuke. Aniztasuna aparteko zerbait bezala tratatuz gero, eta gainera era mugatuan, jendea desberdin tratatzeaz gain dikotomiak sendotzen ditugu. Eta beste arrisku bat ikusten dut: posizioak gotortzen ditugu. Ez dugu elkar topo egiten.

Interseksionalitatea: Hitz hau ulertzen ari gara batuketa balitz bezala, eta ez da hori, uztarketa da. Hau da, esango nuke interseksionalitatea dela berez bateratzeko oso zailak diren menderakuntza faktoreen uztarketa. Adibide bat: esan dezakegu euskara dela nazio edo herri kategoria eta entzule gehienok ados egongo zarete. Beste adibide bat: hitz egin dezakegu euskararen kolonial-

tasunaz edo dekolonialtasunaz, baina, bestalde, esan dezakegu euskara klase kategoria dela. Gaur egun, Euskal Herrian euskara klase kategoria da. Joseba Zala-kainek *Pobreen hizkuntzak* iritzi artikulua publikatu zuen *Berria*-n. Euskal Herrian pobreen hizkuntzetako bat gaztelania da. Batetik, pobreen hizkuntza da, eta bestetik, kultur hegemonia inposatzeko erabiltzen den hizkuntzetako bat. Asko korapilatzen zaizkigu teoria eta praktika politikoa, baina hori dena artikulatzeko ariketa egin behar dugu.

Amaitzeko Astobizak *Berria*-n argitaratutako artikulua batean esaten zuen: “Herriko emakume arrazializatuen borrorak agerian utzi eta sektore feminizatuetan dihardutenen lan baldintza prekarioak ezagutarazi nahi baditugu, nola egingo dugu euskaraz bakarrik?”. Eta hemen, Lutxo Egiak aipatu zuen [ziklo honetako bigarren solasaldian] gai bat datorkigu: transitzatzeko beharra. Oker ez banago, berak zioen transitzatzera kondenatuta gaudela eta nire galdera da: negatiboa da? Iruditzen zait gaur gaurkoz behartuta gaudela transitzatzera. Beste gauza bat da transito hori nola egin euskara galtzaile ez ateratzeko, baina transitoak beharrezkoak iruditzen zaizkit. Oso ariketa zaila da, baina ezin dugu saihestu.

Hau dena azaltzeko teoria dekolonialaz ari gara gaur egun feminismoan. Ez dut ezer deskubrituko, baina esango nuke teoria dekolonial anizkoitza behar



EUSKARA ETA FEMINISMOA BIDELAGUN JARDUNALDIK

2020ko azaroko astearteetan izan ziren ondoko lau mahai-inguruak:

“Hizkuntza eta generoa: hurbilpen teoriko bat” (Lorea Agirre eta Idurre Eskisabel); “Ez gara euskaldun jaiotzen, egin egiten gara” (Lutxo Egi eta Irene Arrarats); “Hizkuntza, generoa eta beste menderakuntza batzuk” (Palmira Dual, Leocadia Bueriberi eta Tarana Karim); eta “Euskaingintzaren eta feminismoaren arteko zubiak” (Mariluz Esteban, Saioa Iraola eta Elurre Iriarte). Lau saioen bideoak eta June Fernández-en kronikak sarean aurki daitezke.

dugula, norabide desberdinetakoa. Zergatik? Batetik, aitortu behar dugu bai Europatik eta bai beste herrialdeetatik munduko beste toki batzuetara kolonialismoak eraman direla eta eramaten ari direla. Bestetik, European adibidez, nazio estatuak sortzeko eta antolatzeke elebakartasuna erabili zen eta erabiltzen jarraitzen da. Horregatik behar dugu norabide desberdinetako teoria dekoloniala, nik uste horretan ari garela, baina azpimarratu nahi nuen, zeren teoria batzuk zabaldu egin behar dira hizkuntza-aren gaia sar dezagun.

Bukatzeko hiru gauza aipatu nahiko nituzke. Lehenik, batez ere diagnostiko orokorrak egiteko ahalegina egin dugu. Diagnostiko partikularrak falta zaizkigu. Esan nahi dut, herriz herri egiten ari garena, zein zailtasun topatu diren, zein ekarpen egiten diren... aztertzea eta horretaz hitz egitea falta zaigu.

Bigarrenik, gaiak errazak ez direnean, gatazkatsuak direnean, eztabaidak nola egin? Uste dut ez dugula beti asmatzen. Adibidez, iruditzen zaigu inportantea dela jarrera desberdinak jendaurrean azaltzea, bakoitzak esan dezala nahi duena. Interesgarria da, baina neurtu behar da noiz, nortzuk eta batez ere zertarako. Gai batzuk ikuskizun bihurtzen ditugu, gaurko gai honetan edo feminismoan orokorrean, eta gero emaitzak edo ez ditugu kontrolatzen edo ez dira antolatzaileek nahi dituztenak. Eztabaida pribatuak oso inportanteak dira, ez dakit nahikoa egiten ari garen.

Eta bukatzeko galdera bat: zer itzultzen ari gara euskarara eta zer argitaratzen?. Badakit itzultzaile feminista kuadrilla bikaina dugula eta ez bakarrik hitz aproposenak bilatzen ari direlako, itzulpenaren bidez teoria feminista sortzen ari direlako ere bai. Oso ondo, baina zer itzultzen, ikertzen, argitaratzen ari gara?. Horrek markatuko du epe ertainera eta agian epe luzera Euskal Herriko feminismoa. Euskal Herriko feminismoa elikatzen, sortzen, ari gara horren bidez. Ardua handia da. Batez ere sortu nahi badugu feminismo bat zeinak kanpo eta barne kolonialismoak kontuan hartuko dituen; aniztasuna bai, baina gizarte desberdintasunak kontuan hartuko dituen (euskararena barne); eta era berean hemen errotutakoa. Halako feminismo bat nahi badugu, egiten ari garenak bide horretatik eramango gaitu ala diskurtsoak eta praktikak bide desberdinetatik doaz?



“Euskalduntzeko bitarteko publiko eta doakoak garatzea aldarri feminista bilakatu da”

SAIOA IRAOLA URKIOLA

Gaur egungo errealitatea eta aurrera begirako erronkak zeintzuk diren azalduko dut. Lehenago adierazi dudanez, mugimendu feministaren intentzio bilakatu da euskara, eta ez naiz ari kartelak ele bitan egoteaz edo mahai-inguruak itzultzeaz. Ari naiz mugimenduaren eta artikulazio feministaren funtzionamendua, ikuskeraz.

Orain iraunkor honetan sei gako aipatu nahiko nituzke.

Lehenik, feminismoa, Euskal Herrian, saiatu da zapalkuntzaren ertz guztiak barnebiltzen, baina hizkuntza minorizatu kasuan kosta egin zaio, hau da, lengoia hegemonikoetarako joera gailendu da askotan, nahiz eta ulertu hizkuntza txikien bazterketa menperakuntza patriarkal, kapitalista eta inperialistaren beste ondorio bat dela. Hala ere, iruditzen zait mugimendua azken urteotan

gaiak eztabaidatzen eta proposamenak garatzen ari dela, baina ez da erraza, askotan jotzen dugu borroka mailakatzera. Alternatiba feminista, antikapitalista... eta horiek denak ahizpa sentitzea lortu behar dugu. Gainera, krisi garai honetan, inoiz baino beharrezkoagoa dela uste dut euskalgintza, klase borroka, luraren eta lurraldearen aldeko defentsa eta feminismoa eskutik joatea. Jardunaldietan esan da euskaraz aritzea justizia kontua dela eta feminismoak justizia soziala du helburu, eremu guztietan.

Bigarrenik, Euskal Herriko V. jardunaldi feministak aipatu nahiko nituzke, mugimendu feminista euskarari lotuta egiten ari den bidean oso garrantzitsuak izan zirelako. Euskara kohesiorako hizkuntza gisa kokatu zen, feministen arteko aniztasuna zaintzeko ahalegina egin zen eta hizkuntza irizpideak zehaztu ziren. Gure askotariko errealitate linguistikoari

erantzun nahi zitzaion, baina hizkuntza auzi kolektibo eta politiko moduan ulertzeko eta mugimendu feminista euskalduntzeko ahaleginak ere egin nahi izan ziren.

Horretaz gain, eta uste dut historian lehen aldiz, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza jardunaldiak diruz lagundu zituen hizkuntza-bitartekoak jartzeko. Ardura partekatua garrantzitsua da. Mugimenduak ardura du aniztasun linguistikoa aintzat hartu eta euskara erdigunera ekartzeko intentzioan tresnak jartzeko, baina instituzioek ere bai.

Baina, hala ere, kritikak jaso genituen, euskararen presentzia eskasa izan zelako batzuen ustez. Ongi etorri kritikak, ulertzen ditut, baina momentu honetan egindako bidea aitortu eta lortutako adostasunak balioan jarri nahiko nituzke. Zorionez, ertzak leundu eta askotariko emakumeak erdigunean biltzen ari gara. Eta ados nago, gai honen inguruan gehiago eztabaidatu behar dugu. Euskarra eta euskarazko kultura feminista sustatzen egingo dugun ahalegina politizatu, zabaldu eta legitimatu behar dugu eta antolatutako feminista guztiek hau ulertu eta bere egin beharko lukete. Bestetik, ohartu gara aliantzak eraikitzeke ezinbestekoa dela hemen dauden beste hizkuntzekiko eta kulturekiko begirunea izatea. Horietako batzuk gainera, hizkuntza ez hegemonikoak dira.

Hirugarrenik, militante askorentzat mugimendu feminista da beraien euskalduntze eta euskaltzaletze eremu nagusi, eta bakarria askotan. Alegia, euskalduntzea ezin dugu mugatu euskararen kudeaketara edo elkar ulertzera. Segituko dugu xuxurlariak, itzulpeneko entzungailuak eta euskarako ikastaro autogestionatuak izaten, baina ez da hori bakarrik, eta hau ez da euskal feministon ardura soil, euskaltzale eta euskaldun guztiona da. Emakume feministak euskarara eta euskal kulturara gerturatzeko eta euskara setiatuta ez hiltzeko, euskara gauza askorekin lotu behar da: lurrarekin, amets egitearekin, iraultzarekin, ertzeekin... Ezinbestekoa iruditzen zait euskararen iruditeria tradizionala (abertzaletasunarekin lotua) eta gaztelania postmodernoaren iruditeria iraultzea. Horretarako aliantzak behar dira euskalgintzaren, feminismoaren, Euskara Sailen eta Berdintasun Sailen artean.

Laugarrenik, euskalduntzeko bitarteko publiko eta doakoak garatzea al-

darri feminista bilakatu da. Euskalduntzea ez baita soilik ideologikoa, klase kontua ere bada.

Bosgarrenik, espazioak behar ditugu gure joan-etorriak egiteko. Adibidez, orain Pasaian berdintasun teknikari naiz, eta Berdintasun, Euskara eta Migrazio Sailak elkarlanean ari gara. Hilabeteen behin sortzen ditugu jatorri askotakoek eta bertakoek elkar eza-gutzeko guneak eta aukera ematen du zenbait gai lantzeko, eztabaidatzeko, eta hala, akordio txikiak gure herrietan egiteko.

Bukatzeko, gure feminismoak aktibaziorako ikaragarritzko gaitasuna du, ikusi besterik ez azken bi urteetako M8ko mobilizazioak, baina erronka berriak jartzen dizkigu mahai gainean. Bi urteetako Bilboko mobilizazioez esan zen oso espainolak izan zirela. Manifestaziora biltzen den jende saldo eguneroan euskalduna ez bada, mugimenduak zein ahalegin egin behar du? Gure ardura ez da (gaitasunik ere ez dugu) feminista guztiak euskalduntzea, baina aldiz, gure aukeren barruan dago bertaratutako feminista ez euskaldunak euskararekiko, euskal komunitatearekiko eta Euskal Herrian dauden feminismoekiko begirunea eta aitortza izatea.

“Noiz arte jarraitu behar dugu xuxurlatzen, aldibereko itzulpenak eta batzar paraleloak egiten?”

ELURRE IRIARTE BAÑEZ

Non gurutzatu zaizkigu euskara eta feminismoa Baztanen? Bada bi kontakizun egingo ditut segidan.

Lehen kontakizunak mugimendu feministarekin zuzeneko lotura du. Feminismoan hizkuntza zapalketa gurutzatu zaigu edo horri buruzko eztabaidak izan ditugu gehienbat kanpaina bateratuak



ZALDI ERO

izan ditugularik, dela M8, Emakumeen Mundu Martxa... Hainbat mugimendu feministatakoak elkartu garenean eztabaidak sortu dira, espainol hiztunekin edo azken urte hauetan migratu dutenekin aliantzak egin nahi izan ditugularik. Eztabaidak beti euskaldunen artean ematen dira, arrazoi bategatik edo bestearengatik espainola erdigunean paratu behar den ala ez eztabaidatzen dugu. Adibide gisa, azkeneko M8an ekonomia feministari buruzko tailer bat egin genuen eta proposatu zen espainolez egitea. Gauza bitxi bat: azken urteotan, besteak beste, Peru, Nikaragua, Txina, Errusia, Maroko eta Errumaniatik etorri dira, bada sekula ez dira planteatzen aliantzak espainol hiztun ez diren migra-tuekin. Uste dut hizkuntza zapalketaren ondorio dela.

Haiek beraien herrialdeetatik ekarritako hizkuntza zapalketak ere ez ditugu kontuan hartzen. Tarrapataka saiatu gara eta ez du funtzionatzen ahal. Anitzetan gurera ekarri nahi ditugu, elkarrekin aritu baino. Hobetu behar dugu. Ez gara elkarri entzuteko kapazak izan, gu/haiek eta haiek/gu. Saiok aipatu du guk ere kontatu behar dugula zein den gure zapalketa. Migranteak eta espainol hiztunak alde batera utzita, kanpaina zabalagoetan parte hartzen dugunean, Iruñera joaten garenean, anitzetan ukatu behar izan dugu gure identitatea, euskara bigarren mailan geldituko delako. Horrelakoak soluzionatu behar dira, ez dakit nola, baina ez dago batere dudarik elkarrekin egin behar dugula, baina ez espainoletik abiatuta, euskaratik baizik.

Guk izan ditugun eztabaidak eraikitzaileak dira, baina aldi berean lehendik datozenak. Duela 50 urte eta gaur egun ere ari dira eztabaidatzen emakumeen espazioetan gizonek egon behar duten ala ez. Bada, hemen ere bai. Bilatzen ditugu soluzioak, hala nola, xuxurlatzea, aldebereko itzulpenak, batzar paraleloak... Saiok ikastaro autogestionatuak aipatu ditu eta klabea da, baina gure galdera da: noiz arte ibili behar dugu aha-lerin hau egiten? Bueltan eskatu behar dugu gauza bera? Xuxurlatu diodan horrek egunen batean esango dit ez xuxurlatzeko orain ulertzen duela? Bueltan etorri beharko zaigu zerbait.

Genero zapalketarekin ez dugu berdin jokatzeko anitzetan, gizonak interpelatzeko ditugu, ez dugu lana egiten beraiek gurekin edo feminismoan eroso senti daitezen. Guk interpelatzen ditugu eta

beraiek egin behar dute bere lana. Espainol hiztunak interpelatu beharko genituzke, uste dut garaia dela. Anitzetan erabiltzen dira erakarri, limurtu, seduzitu hitzak. Zikloaren lehen solasaldian galdera egin zen: "Nola limurtu erdaldunak?". Hitz hori hiztegitik desagerrarazi behar dugu. Ezin dugu beti eder eta polit egon gizonak guregana hurbiltzeko, eta gauza bera erdaldunekin. Erabili beharko genukeen hitza interpelatu da.

Zikloan aipatu da baliabideak doan eskaini behar dituela administrazioak. Eskola autogestionatuena ere gustatu zait. Egin behar badira eginen ditugu. Euskaldunak ahalduentzeko ikastaroak ere behar ditugu.

Elurre Iriarte:

"Limurtu
hitza hiztegitik
desagerrarazi behar
dugu. Ezin dugu beti
eder eta polit egon
gizonak guregana
hurbiltzeko,
eta gauza bera
erdaldunekin"

Bigarren kontakizunari helduko diot orain. 'Plazara dantzara' taldeko kidea naiz eta tradizio handiko dantza den mutuil dantzan emakumeek parte hartzearen aldeko borroka egin dugu. Taldean ez dugu euskarari buruzko eztabaidarik izan, euskaraz sortu da eta euskaraz funtzionatu du. Hasmentatik argi izan genuen ez genuela zapalketa bat akituko beste zapalketa bat emanez.

Koherenteak izan gara eta adibidea jarriko dut ikusteko posible dela. Gizon baztertzailak espainol hiztunak dira, ordezkariak bai behintzat. Bilera egin genuen. Beraiek esaten digute emakumeoi noiz, nola, non eta norekin dantzatu behar dugun, eta guk ez diegu kasurik egiten. Bilera prestatzerakoan ohartu gi-

nen espainolez egingo zigutela eta ohartu ginen noiz-nola-non-norekin dantza egin esateaz gain, zein hizkuntzatan aritu behar ginen ere esango zigutela. Kasurik ez egitea erabaki genuen. Bilkuran euskaraz egin genuen. Ulertzen zutena ulertzen zuten edo moderatzaileak edo guk geuk itzultzen genien.

Ibilbide honetan ohartu ginen harreman zuzena dutela hizkuntzak eta generoak, baina baita klaseak ere. Gizon baztertzailak gehienak espainol hiztunak dira eta botere ekonomikoa dute Baztanen. Badira euskaldun asko, baina gehienak espainolez bizi dira eta taldeak espainolez funtzionatzen du. Gizonok biktima rola hartzen dute, "ez diguzue uzten dantzatzeko", esaten digute. Beraiek ez dute gurekin dantzatu nahi edo dantzan ari direla gu sartzen gara eta gelditu egiten dira, kalapita sortzen da. Hizkuntzarekin gauza bera da. Zenbat aldiz aditu dugu hizkuntza inposatzen dugula?

Mutil dantza bertako kulturaren dugun gatazka da eta kontrari ditugun gizon horiek urteak daramatzate Baztanen bizitzen edo bertan sortuak dira. Alabaina, euskara ikasteko, erabiltzeko, edo ulertzeko esfortzurik ez dute egiten. Zergatik erabiliko edo ikasiko dute euskara botererik ematen ez badie? Gakoa litza-teke euskarak pisua izatea, jendeak ulertzeko edo erabiltzeko beharra sentitzea.

Bi ibilbide hauekin zein ondorio atera ditugu eta zein erronka ditugu? Bizipen horiek erakutsi digute gorputz beretik ari garela, euskaratik eta feminisмотik, hau da, emakume eta euskaldun bezala ezin ditudala bereizi bi ni-ak: feminismoan ari banaiz ezin dut euskararen zapalketa alde batera utzi eta euskalgintzan ari banaiz ezin dut feminismoa alde batera utzi. Bi zapalketak lotuta daude, borrokek ere lotuta egon beharko lukete. Ahalduentzea ere hala lotuta etorriko da: emakumeak ahalduentzen ari gara feminismoaren eskutik eta euskaraz ari bagara euskara ere ahalduentzako da, eta gauza bera euskalgintzan, euskal munduan feminisмотik ari bagara feminismoa ere indartuko da.

Akitzeko, bi erronka feminisмотik euskara erdigunean jartzeko eta ez dute errezeta izan nahi. Batetik, zapalketa ikusaraztea inportantea da, zeren zapalketa normalizatzen badugu ezin gara ahalduendu. Bestetik, ikasi behar dugu hizkuntza zapalketan ematen diren erasoak salatzen. ●

ASTIKA HERRIA, ERAISTE ARRISKUAN

Astika Herria Erandioko (Bizkaia) proiektu autogestionatua da. Huste arriskuan dago. Abendu amaieran auzoko baserriak eraisteko agindua jaso zuten bizilagunek. Instituzioen "prebrikazioa" dela salatu dute. "Interes espekulatiboen" eta "gehiegikeria instituzionalen" aurrean, Astikako bizilagunek proiektuari eusteko asmoa dute.

 ANDREA BARTOLO

Duela hamasei urte okupatu zuten Astika Herria. Hiru baserriak, baratze komunitarioek eta industria-nabe batek osatzen dute autogestionatutako auzoa. Labartain S.L. enpresak lursail osoa erosi du aisialdirako makro-azpiegitura bat egiteko, eta horrek Astika husteko mehatxua ekarri du.


Astika etxebizitza proiektu gisa abiatu zuten 2004ko maiatzean, lehen baserria okupatu zutenean. 2009-2010 urteen bueltan, proiektua zabaldu egin zen: beste pertsona talde batek bigarren baserri bat alokatu zuen eta abandonatuta zegoen industria-nabea egokitu zuten, auzokideentzat leku komun gisa eta kanpora begira espazio ireki modura erabiltzeko.

Nabearen okupazioa jauzi kualitatiboa izan zen Astikarentzat, horren birtatez proiektua gizarteratzen eta herriari irekitzen hasi zelako. Ordutik, Astika etxebizitza multzoa baino zerbait

gehiago da; esperimentazio komunitarioarako gune bilakatu dute. "Elkar topatzeko eta sozializatzeko lekua da, kolektiboki esperimentatzeko, ikasteko eta hazteko. Han bizi garenok zein bizi ez garenok identitate partekatu bat eraiki dugu. Izate amankomun bat, kolektiboki munduari aurre egiteko modu bat eraiki dugu", diote auzokideek. Industria-nabea erreferentzia-gune bihurtu da, auzokideen eta proiektua bisitatzen dutenen arteko topagune; han antolatzen dira tailerrak, kontzertuak, antzezlanak, edota jai herrikoiak –Astika auzoko jaiak edo solstizio gau "magikoak", esaterako–.

Nabearen egokitzapenari esker, Astika hainbat kolektibok eta proiektu politikok elkarbanatutako espazio bihurtu zen; Komantxe Konpartsarena, adibidez. Bilboko okupazio eta autogestio mugimenduaren konpartsak erabili ohi du nabea, bai biltegi bezala, bai lane-gunetarako eta bileretarako gune gisa.

2014an, abandonatuta eta suntsituta



zegoen hirugarren baserri bat ere berreskuratu eta egokitu zuten. Auzolanari eta elkarlaguntzari esker, urte gutxi batzuen buruan Astika esperimentatzeko gune bilakatu da, komunitate-harremanak, autogestioa eta elkarrekiko laguntza oinarri.

INTERES ESPEKULATIBOAK ETA ERAISTE ARRISKUA

2007an, Labartain enpresak Astika auzoko lursailen zati bat erosi zuen, oraindik publikoa ez den makro-proiektua eraikitzeko. 2016an lursailen sailkapena aldatzea lortu zuten, erabilera industrialerako lurrak izatera igaroz, eta horrek ateak ireki zizkion makro-proiektuari. 2019ko urtarrilean, Plan Partzialaren onarpenarekin, Erandioko Udalak bide eman zion Labartainen proiektuari.



Astika Herriaren defentsan urtarilaren 11n Erandioko udalaren aurrean egindako elkarretaratzea.

ECUADOR ETXEA

Behin proiektua ziurtatuta, Astikako azken baserriaren jabearekin harremanetan jarri zen enpresa, hura erosteko. Jabeek bi aukera jarri zizkien mahai gainean: baserria saldu edo makro-proiektuaren eta inbertsio-kapitalaren bazkide egin. 2020ko ekainean, Astikako azken lursailak Labartain enpresari saldu zizkieten. Jarraian enpresak baserrietako bat hormatu zuen, bost pertsona etxerik gabe utziz. Dagoeneko ez dago espekulazio-proiektua eragozten duen legerik. Traba bakarra materiala da: auzoak komunitatearen bizitza- eta bizikidetzat-espazio izaten jarraitzen du.

Hala ere, badirudi hori ez dela arazoa ez enpresarentzat, ezta EAJren udal-gobernuarentzat: 2020ko uztailaren hasieran, baserrietako bat eta indus-

tria-nabea eraisteko agindua zegoela jakin zuten auzokideek. Udalak auzoa hutsik dagoela, han ez dela inor bizi, adierazi du. Auzokideek hainbat helegite jarri dute, eta horien bidez frogatu dute auzoan jendea bizi dela. Baina 2020ko abenduan Labartain enpresari baserriak eraisteko baimena berretsi diote. Hortaz, une horretatik aurrera eraisketa edozein unetan egin dezakete: “Erandioko Udalak zein epaitegiak bere horretan jarraitzen dute: Astika Herrian ez dela inor bizi diote. Beste behin ere, Bilboko administrazioarekiko auzien 5. zenbakiko epaitegiak logika guztien aurka ebatzi zuen eraikin bat eraisteak ez duela etxebizitzaren bortxaezintasuna urratzen, nahiz eta bizilagunak etxe barruan egon”, salatu dute auzokideek.

ASTIKATIK HARAGO DOAN GATAZKA

Udan, enpresaren eta udalaren mugimenduen aurrean, Astikako bizilagunek mobilizatzeko unea zela erabaki zuten. Lehenengo urratsa Erandioko udaletxearen aurrean elkarretaratzea egitea izan zen: uztailaren 17an egindako mobilizazioan ehunka lagunek proiektuari elkartasuna adierazi zioten.

Abenduan, eraiste aginduaren aurrean, beste mobilizazio masibo baterako deia egin zuten. Urtarrilaren 11n, Erandioko udaletxearen aurrean, “Herrisistentzia da bide bakarra” eta “Astika defenda dezagun” lelopean, ehunka lagun bildu ziren enpresaren “interes espekulatiboak” eta udalaren eta EAJren “prebrikazioa” eta “abusuak” salatzeko. “Labartain S.L.-ek Astika Herria eraitsi nahi du, EAJren baldintza gabeko



laguntzarekin. Bizitzaren aurrean, por-lana eta diru gosea lehenesten jarraitzen dute”, salatu dute auzokideek.

Astikako bizilagunek azpimarratzen dute jokoan dagoena ez dela soilik etxebizitza batzuen aldeko borroka, baizik eta bi logika antagonikoren arteko gatazka orokorrago bat: “Kapitalaren logika” vs. “bizimodu komunitarioak”. “Astikako gatazkaren muinean aurkako bi jarreraren arteko talka dago, kapitalaren eta bizitzaren arteko talka”, diote.

Auzokideek ondare historiko gisa aldarrikatzen dute Astika: “Astikako base-rirei buruz hitz egiten duten lehen iturriak XVI. mendekoak dira”; hala bada, “gure herriaren historia bizia dira”. Makro-proiektu honekin, “interes espekulatiboen memoria eta historia mila zementu-tonen azpian lurperatu nahi dituzte”. “Eraiste honek argi uzten digu EAJri ardura zaion memoria bakarra museoetan dagoena dela. Beste modu batez esanda: kapitalismoaren merkatuan saldu daitekeen memoria. Gainontzekoa lurperatu eta ezabatu egiten dute”, adierazi dute Astikako bizilagunek.

Lokalaren eta globalaren arteko dialektikari dagokionez, auzokideek aldarrikatzen dute Astika Euskal Herri osoan gertatzen ari den borroka baten

beste fronte bat dela: “Alde batean gutxi batzuen interes ekonomikoak daude: AHT egiteko gure mendiak suntsitzen dituztenenak, eraikuntzarekin espekulatzekeo gaztetxeak desalojatzen dituztenenak. Beste aldean erresistitzen

Dagoeneko ez dago
espekulazio-proiektua
eragozten duen
legerik. Traba bakarra
materiala da: auzoak
komunitatearen bizitza-
eta bizikidetza-espazio
izaten jarraitzen du

dugunok gaude, mundu solidarioago baten alde borrokan jarraitzen dugunok. Azpiegitura handiak saboteatzen dituzten borrokak edo okupazioaren bidez jabetza pribatuari eta espekulazioari eraso egiten dieten borrokak ere

gure borrokaren parte dira”.

Udan eraiste arriskua zabaldu zenetik egin diren mobilizazioen balorazio positiboa egin dute Astikako bizilagunek. Azken hilabeteetan egindako lana jauzi kualitatibotzat jo dute: Astika “hainbat kolektibok elkarbanatutako espazioa izatetik subjektu politiko izatera igaroda”; hala dela erakusten dute haranean eraikitzen ari diren autodefentsa eta elkarlan sareek (Erandioaldeko beste baserri eta proiektu autogestionatuekin batera), eta Bizkaiko gaztetxe eta gazte asanbladekin egiten ari diren elkarlanak. “Gatazkari esker, komunitateari buruz dugun kontzeptua zabaldu eta erradikalizatu egin dugu. Gaur egun Astika erresistentzian dagoen komunitatea da, borroka zabaldu ahala hazten doana”.

Auzokideak ziur daude: “Borroka hasi baino ez da egin”. Horregatik, “Euskal Herri matxinatu osoari” dei egiten diote, gonbidatuz Astikatik pasatzera, proiektua ezagutzera eta egingo diren mobilizazioekin bat egitera. ●

Hurrengo mobilizazioa urtarrilaren 23an deitu dute. “Amorrua antolatuz, Astika Herria defendatu!” lelopean, Erandiko metroko plazatik abiatuko da manifestazioa, 12:30ean.

IKERKETA

Grebak sindikatua indartzen du

Europar greba gehien egiten den lurraldea da Euskal Herria. Ikerketa baten arabera, ELA eta LABen konfrontazio estrategia horrek “sindikatuaren berritzea” eta langileen epe luzerako ahalduntzea ekarri ditu.

URKO APAOLAZA AVILA DANIEL BLANCO

Grebarik gabe, sindikatuak ez dira berritzen”. Hau da, zaharkituta geratzen dira konfrontazio dinamika hori ez bada ematen. Jon Las Heras EHUko ekonomia irakaslearen eta Lluís Rodríguez ekonomialariaren esanetan, logika horrekin jokatu izan dute “kontraboterean” dauden euskal sindikatuak, negoziazio kolektiboa bultzatzeko garaian. *British Journal of Industrial Relations* aldizkarian argitaratu ikerketan ondorioztatu dute, gako hori gabe ezin liteke ulertu sindikatu horien aurrerakada, ezta Euskal Herria “greben Europako ligako liderra” izatea ere.

Ekonomialariok, azken hamarkadatan Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian izandako grebak ikertu dituzte. Datu batzuk: 1990etik 2017ra batez beste 366 greba egun egin ziren 1.000 biztanleko; Espainiako Estatukoaren bikoitza da (188) eta Frantziako Estatukoaren hirukoitza baino gehiago (103). Baina joera da adierazgarriena: Europako beste herrialdeetan gero eta greba gutxiago egiten diren bitartean –nagusiki sindikatu handiek itunpeko estrategiara jo dutelako– Euskal Herrian ugartu egin dira.

Hego Euskal Herrian bi sindikatu bloke sortu dira, estrategia desberdinekoak. 1990ean ELAk izandako birkokatzean du jatorria horrek, batez ere laneko gatazkek negoziazio kolektiboan izan dezaketelako eraginaren inguruko hausnarketengatik, baita burujabetza eta finantziazioarekin

zerikusia duten faktoreengatik ere. Hala, “kontraboterean” dauden sindikatuaren bloke bat sortu da, ESK, Steilas eta LABekin batera –azken honek afiliazioan gora egin du nabarmen– eta eragile sozialekin elkarlanean.

CCOO eta UGT, bestalde, estatuaren diru-laguntzei oso lotuta daude eta “erreformismoaren” blokean sartu beharko lirateke, Las Herasek Euskadi Irratian azaldu duenez. Errealitate horren aurrean leudeke kontrabotereko sindikatuak: “Deslegitimatzen dute prozesu neoliberala eta azkenean bilatzen ari dira estrategia autonomo gisa sindikalgintza bideratzea”.

Lan gatazkek sindikatuak berritzeko estrategiaren erdian jartzeak, ekarri du greba langileen mobilizazio soila baino gehiago, izatea ahalduntze eta “antolaketa sakonagoa” lortzeko bide bat, lan merkatuaren desarautzeari kohesioz aurre egiteko: “Negoziazio kolektiboarekin konprometitzeko modu sindikalistago hori, besteak beste, afiliazio-tasa nabarmen altuagoetan, hitzarmen kolektibo onak sinatzean edo azken lan-erreformen aurrean hitzarmen kolektiboak ‘blindatzeko’ gaitasunean adierazten da”, azaldu dute.


‘SPILL OVER’ BORROKALARIA

Antolaketarako tresna funtsezkoetako bat erresistentzia kutxa izan da, afiliatuaren ekarpenarekin osaturik, beharra

duten langileei laguntzeko. Las Herasek eta Rodríguezek diotenez, Euskal Herrian gero eta esperientzia gehiago daude bere eraginkortasuna azaltzen dutenak: “ELAk greba gehiago eta luzeagoak egin ditu horren bidez”, diote, eta *spill over* edo “gaintitze” efektu bat ekarri du estrategia horrek, beste sindikatuak ere antzeko funtsak osatzera eraman dituenak.

ELAk 1978an sortu zuen erresistentzia kutxa, LABek 2010ean Borroka Kutxari ekin zion, eta ESK-k berriz, Elkartasun Funtsa dauka 2005az geroztik. Autonomia finantzio horrek askatasun handiagoa ematen die konfrontazio estrategia abiatzeko. Beste datu bat: greba egiteko 32 aldiz joera handiagoa dute.

Ikerlariak hainbat galderarekin amaitzen dute euren lana: “Erresistentzia kutxak borroka intersindikalak indartzen baditu, gerta al liteke *spill over* borrokalaria bat’, non beste sindikatuak ere ELAren kontrabotere eredua simulatzera bultzatu dituen? Sindikatu blokeen barruan –bereziki kontrabotereko blokean– lotura estuagoak sortuko al ditu horrek? Agian grebarako funts komunak sortzea?”. Gauza bat garbi dute, “estrategia horietan aldaketa handirik ez badago, hartutako bideen menpekotasunak, seguruenik, Euskal Herrian sindikalgintza ulertzeko dauden bi forma ezberdinen arteko ‘amildedia’ handituko du”. ●



**“Jendeak
asexualoi buruz
duen irudia?
Erreprimitu
hutsak garela”**



Askok uste du patologia psikiatriko baten edo aukera pertsonal (erlijioso) baten ondorio dela asexualitatea, baina identitate sexualtzat onartuta dago eta herritarren %1 asexuala da, ikerketen arabera. Kopurua handiagoa dela baina asexual askok hala denik ez dakiela uste du ordea gure elkarriketatuak, hain da identitate ikusezina, hain da handia honen inguruko ezjakintasuna. Bere izena argitaratzea nahi ez duen 36 urteko emakumea elkarriketatu dugu, Gipuzkoako herri txiki batekoa, eta 35 urte bete zituen arte ez zion izena jarri bizi eta sentitzen duenari: orain badaki, asexuala da.

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ  DANI BLANCO

Kontaiguzu, zer da zehazki asexual izatea?

Asexual izatea da besteenganako erakarpen sexualik ez izatea. Erakarpen sexualik ez izateak ez du esan nahi desira sexualik ez dugunik; alegia, masturbatzea aukeratu dezaketete asexual batzuek, desira sexuala asetzeko. Beste batzuek ez dute ez erakarpenik ez desirarik; hainbatek, norbaitekin maitemindu ostean, harekin harreman sexualak izatea aukeratu dezake. Asexual bakoitza munda bat da.

Zuk noiz jakin zenuen asexuala zarela? Zaila al da konturatzea?

Urtebete baino ez da nire identitateari izena jarri niola, 35 urterekin. Sentitu, horrela sentitu naiz bizitza osoan, ezberdin, baina izena iaz jarri nion, beraz bai, zaila da konturatzea. Aurretik, nire kasuan ongi samar eraman dut, ikusten nuen ezberdina nintzela eta pentsatzen nuen besterik gabe nire lehentasunak beste batzuk zirela, ez norbaitekin li-

gatzea. Baina egoera berean dagoen jende askok oso gaizki pasatzen duela badakit, arraroak direla eta normalak ez direla sentitzen dutelako. Kontua da jende asko dagoela asexuala izan arren ez dakiena.

Lehengo urtean, lan bat egiten ari nintzela, buru nahasmenduen "biblia" den DSM eskuliburuan (buru asalduren diagnosi eta estatistika eskuliburu) libidoaren nahasmenduari buruz asexualitatea aipatzen zen, eta gaiaz gehiago irakurtzeari ekin nion. "Ni hori naiz!", pentsatu nuen.

Baina orduan buruko nahasmendutzat hartzen du DSMk asexualitatea?

Ez, orain jada ez. DSMko zerrenda berritzeaz arduratzen den American Psychiatric Association elkarteak 2007an ondorioztatu zuen asexualitatea ez dela nahasmendua, baina eskuliburuaz ezenez 2013ra arte berrargitaratu, urte horretara arte nahasmendu gisa agertu zen. Berdin gertatu da beste sexu joera batzuekin: homosexualitatea 1990 arte zerrendan zegoen, eta transexualitatea nahasmendutzat hartu da 2018 arte. Eta hala ere, oraindik ere hormonak hartzea baimentzeko aurretik psikiatriarenera joan behar dute transexualek. Hauek guztiak nahasmendu gisa patologizatzea ezjakintasunaren seinale da, nire ustez. LGTB+ kolektiboaren borroka garrantzitsua izan da, horri aurre egiteko.

Hori du estigma handienetakoa asexualitateak? Nahasmendu, trauma... gisa hartzen dela besteekin sexurik eduki nahi ez izatea?

Bai, jende pila batek horrela pentsatzen du, uste dute ez dela normala erakarpen sexualik ez izatea, eta horregatik nahiago dut nire egoera kontatzen ez aritu. Baina horrela jaio naiz eta kito, ez dut nahasmendu edo trauma gisa sufritzen.

Jendeari esaten diozunean asexuala zarela, zein izan ohi da erreakzioa?

Ez dut hitza erabiltzen, "asexual" etiketak ez duelako laguntzen, jendea gehiago nahasten dut, baina azalduta ere jendeak ez du erraz ulertzen. Nik jende gutxiri azaldu diot, estigmatizatuta dagoen zer-bait delako. Zortea izan dut eta etxean oso ongi hartu dute, baina aholkatu di-

date hori kontatzen ez aritzeko, barre egingo didatelako, jendeak min egiteko baliatu dezakeelako. Koadrilako biri ere kontatu diet, aurrerantzean ez daitezen tematu norbaitekin ligatu dezadan, eta galdera izan da: "Nola dakizu asexuala zarela, ez baduzu probatu zer den beste norbaitekin sexua izatea?". Eta erantzun nien: "Eta nola dakizue zuek ez zaretela lesbianak, ez baduzue probatu?". Betiko galdera da. Eta betiko ustea: zelibreak garesti. Ez, ez gara zelibreak, beraiek erakarpina izan badutelako, baina arrazoi erlijioso edo bestelakoengatik erabaki dute ez dutela beste norbaitekin sexu harremanik izango.

Jendeak gutaz duen irudia? Erreprimitu hutsak garesti, friki batzuk. Uler-tzen dut jende gehiena ez dela ni bezalakoa, eta hortaz ezjakintasun hori egotea, azken finean sexu heziketan eta sexuari lotutako ikastaroetan ez baita asexualitatea lantzen. Guztiz ikusezin gara eta batzuetan denbora eman behar zaio jendeari. Beste kontu bat da errespeturik gabe barre egiteko eta iraintzeko erabiltzen badute nire identitatea. Duela hiru bat urte, ezagun batek jende pila baten aurrean bat-batean bota zidan: "Zer, estreinatu al zara dagoeneko?". Nik esan nion bost axola zitzaiola nire bizitza sexuala. Guztiz barregarri utzi nahi izan ninduen jende guztiaren aurrean.

“LGBTI+ kolektiboak hauspo handiagoa eman beharko ligukeela uste dut, oso baztertuta gaude kolektiboaren barruan ere”

Nerabezaroa da beharbada garairik zailenetakoa?

Nik gaizki pasa nuen, mutilen bat gustuko nuelako adibidez, baina gustuko baka-rrik, sexu erakarpenik izan gabe, eta ez nekien sentimendu horiek nola kudeatu. Lagunekin-eta, sentitzen nuen presioa- ren aurrean gaia saihesten nuen beti; "li-gatu al duzu?" galdetzen bazidaten, nire bizitza pertsonala zela erantzuten nuen.

Kuriosoa da, beti pentsatu izan dut ez nuela ligatzen, baina lagunek esaten zidaten baietz, nirekin ligatzen saiatzen zirela, nahiz eta ni ez jabetu. Beharba da izango da erakarpenik sentitzen ez dugunez norabide horretan doazen seinaleak ez ditugulako harrapatzen edo ongi interpretatzen...

Sexuak agintzen eta baldintzatzen duen gizartean bizi gara, gizarte sexualizatuan. Nola eramaten du hori asexual batek?

Asexual batzuek oso gaizki pasatzen dute, bada jende bat adibidez pelikularen batean sexu eszenaren bat ikusi eta nazka sentitzen duena, gizartetik at sentitzen dute beren burua, baina ez da nire kasua. Egia da sexua oso presente dagoela gure gizartean, baina normaltasunez daramat; aspaldi esan nien lagunei “*ni soltera forever*”, eta lortu dut apur bat bakean utz nazaten, nahiz eta batzuetan egoera deserosoak bizi. Niretzat funtsezkoa izan da etxean izan dudana hezkuntza eta babesia.

Beste asexual batzuekin zure bizipenak partekatzeko beharra izan duzu?

Asexual elkarte batekin harremanetan jarri nintzen, baina oso itxiak iruditu zitzaizkidan, asexualok mundu guztia kontratan bagenu bezala, eta adibidez Gehitu Euskal Herriko LGTB elkartearekin harremanetan jarri nahi nuela aipatu nienean erantzun zidaten Gehitun esango zidatela lesbiana errepremitu

bat nintzela. Orain lagun asexualak ditut, baina irekiagoak. Eta gainera, niretzat inportantea da elkartzeara eta solastatzea ez bakarrik asexualekin, sexu joera guztietako jendearekin baizik, aberasgarriagoa delako. Nik, hain juxtu, asexuala ez den pertsona batengan daukat babes handiena; berak bere esperientzia kontatzen dit eta nik nirea, eta hor sentitzen dut askatasun handiena, gaiak hitz egiteko. Aniztasuna lagungarria da, eta zentzu horretan adibide ona da Kanadako British Columbia unibertsitate publikoan nola jorratu duten gaia, genero eta identitate sexual guztietara irekitako komunitatea eraikitzearen aldeko apustua egin baitute, eta tartean asexualak ere hartzen dituzte kontuan.

Bikotekide erromantikoa nahi duenarentzat, oztopo handia da asexuala izatea?

Bikotetan biak asexualak badira, primeran, baina sarri ez da hala, eta ezagutzen ditudan kasuetan ez da erraza hori kudeatzea, bikotekideetako batek sexu harremanetarako gogoia duelako eta besteak ez. Batzuek bikotekidea maite dutelako onartzen dituzte harremanak, baina nik ez dut ulertzen. Horrek ez du esan nahi sexu harreman horietan plazera sentituko ez duenik asexualak.

Ikerketen arabera, %1 da asexuala, baina apenas hitz egiten den asexualitateaz.

Are gehiago, nik ez dut sinesten %1 bai-

no ez garenik. Nik neuk duela urtebetera arte ez dut jakin asexuala naizela, eta esango nuke beste asko ere antzeko egoeran dagoela, asexuala dela jakin gabe. Garai bateko neskazahar eta mutil-zaharretako ugari ziur asexualak zirela.

“ Jakin dezazuela ez gaudela burutik jota, ez garela arraro, friki edo zelibreak; existitzen gara eta ziurrenik ezagunen bat duzu asexuala dena”

Beste sexu identitate batzuen kasuan egiten den aldarrikapen eta borrokaren aldean, asexualitateak ezkutuan jarraitzen du?

Estigma handia dago oraindik eta ikusgarritasuna beharrezkoa da, baina ez da hain erraza. Ni neu herri txiki batekoa naiz eta ez dut etiketa hori eraman nahi gainean. Hain sexualizatuta dagoen gizartean, ez dugu lekurik, ikusezinak gara. Pentsa, batzuetan txapa eramaten dut asexualitatearen banderako koloreekin, baina ia inork ez du ezagutzen.

Zein da bidea, zuen identitatea aintzat har dezagun gizartean?

Hezkuntza da gako nagusia, sexuari lotutako ikastaroetan asexualitateaz ere hitz egitea, besteak beste saiheste-ko horrela sentitzen den jendeak bere burua arrarotzat hartzea. LGBTI+ kolektiboak ere hauspo handiagoa eman beharko ligukeela uste dut, oso bazter-tuta gaude kolektiboaren barruan.

Ikusgarritasun horren mesedetan onartu duzu elkarrizketa hau?

Bai, ahalik eta jende gehienarengana iristeko asmoz: ez bakarrik asexualei laguntzeko, areago, batez ere asexual ez zaretenei gure errealitatea ezagutarazteko. Jakin dezazuen ez gaudela burutik jota, ez dugula nahasmendurik, ez garela arraro, friki edo zelibreak; existitzen gara eta ziurrenik ezagunen bat duzu asexuala dena; tratatu ezazu errespetuz eta enpatiaz, ez izan astuna eta ez jokatutako Zelestina moduan, ez tematu ligatu dezan, nahi ez badu. ●



ESTATUAK ERAISTEA

Mendeku ezjakina ala zilegi den errebeldia?

Pertsonen salerosketan edo kolonizatutako herrien ondasunen arpilatzean nabarmendu zen "gure" historiako pertsonaia asko. "Aurkitzaile", "abenturazale", "hiri sortzaile" eta "enpresa-gizon" haien izenez eta gorputzez josia dugu Euskal Herriko espazio publikoa. Haien ondare ideologikoari gorazarre egin eta esklabotzari, kolonialismoari eta inperialismoari esker "Lehen Mundua" garela oroitarazten digute. Artikulu honen egile eta Glasgowko unibertsitateko ikertzaile Pablo Barruezo Vaquerok dioen moduan, ondare horren presentziari buruz erabakiak hartzeko garaia da.

 PABLO BARRUEZO VAQUERO

Amerikako konkistari
hasiera eman zion
Cristobal Colonen
estatuak jomuga nagusi
bilakatu dira mundu
zabalean. Horietako
bat da AEBetan
Minnesotako Kapitolio
aurrean zegoena,
2020ko ekainean.
Argazkia: Ewan Frost



AEBetan eta beste herrialde batzuetan Black Lives Matter (BLM) bezalako mugimenduek bultzatuta, estatuek eraisteko ekimenak ez dira gauza berria, ezta zer-bait hutsala ere: gizarteak bere ondareekin eta iraganarekin duen harremana erakusten dute. Guztion zerbitzura dauden espazio publikoak aldarrikatuz sortzen dute erlazio hori.

Kalean jarritako estatuak eraisten ikusi ditugu azken hilabete hauetan munduko hainbat lekutan. Ekimen horiek errebisionismotzat, ikonoklasiazat edo historia eta kultura errotik ezabatzeke saiakeratzat jo dituzte batzuek. Kontzeptu horiek, ordea, ez dute balio protesta-ekintza horien esanahia definitzeko eta ulertzeko.

BORROKA ORAINAREKIN DA, EZ IRAGANAREKIN

Errebisionismoa da gertaera edo prozesu historikoren bat kontatzea, baina testuingurua kontuan hartu gabe. Iraganeko gertaerak ukatzea, juduen holokaustoa kasu, errebisionismoa ere bada. Biak ala biak historia kontatzeko praktika txarrak dira. BLM, ordea, ez da errebisionismo historikoa egiten ari.

Garai batean, zalantzarik gabe, arrazakeria normalizatuago zegoen, baina horrek ez du esan nahi orduan aurkako ahotsik ez zenik. Adibidez, Oxfordeko Unibertsitatean Cecil Rhodesen omenezko estatua –azken urteotan bera eraisteko eskaera asko izan dajarri zutenean ere, 1911n, kritika eta gaitzespen iturri izan zen. BLMk ez du arrazakeria testuingurutik atera nahi, gaur egun espazio publikoan estatua duen pertsona askok komunean duen ezaugarria dela baino ez du azpimarratzen.

Kultura errotik ezabatzea –*erradicación cultural* darabil egileak gaztelaniaz– indarkeria sinboliko edo armatuaren bitartez, komunitate jakin baten ezaugarri kulturalak suntsitzeko saiakera gisa uler daiteke. Adibidez, Aro Modernoan eta Garaikidean izandako kolonizazio-prozesuak. BLMren asmoa ez da inongo komunitateren ezaugarri kulturalak suntsitzea. Yannis Hamilakis arkeologia irakaslearen hitzetan, "nagusitasuna eta homogeneousazioa indargabetzeko asmoz sortutako herri-mugimenduak" dira. Premisa horrekin kontraesanean ez badaude, kultura guztien errespetua eta onarpene izatea

da mugimenduaren nahia. Gizartean jada onartzen ez ditugun edo onargarriak ez diren balioak gogoraraziko ez dituzten espazio publikoak sortu nahi dituzte.

Irudi sakratuen gurtza galaraztea da ikonoklasiaren ezaugarri nagusia –normalean irudi horiek suntsituz eta gurtzen dituzten pertsonak jazarriz-. Eskualde eta garai askotan ikonoklasia-ekin lotutako gertaera ugari izan diren arren, terminoak VIII. mendeko Bizantzion du jatorria eta oso ezaugarri historiko zehatzei lotuta dago.

Neurri batean, beste praktika historiko batzuk gogora ekar diezazkiguke. Adibidez, Erromako Inperioaren garai-ko *damnatio memoriae* (oroimenaren kondenzazioa): herritarrak eremu publikoekin harremanetzeko era bat zen, gustuko ez zuten iraganarekin lotutako elementuak kaltetuz. Yannis Hamilakis irakasleak aztertu du gaia eta ukatu du gaur egungo mugimenduak ikonoklas-tak direnik: "Estatuak ez dira irudi sakratuak, herritarrek gurtzeko espazio publikoan jarritakoak. Nagusitasunaren eta boterearen irudikapenak dira".

Beraz, BLMk eta antzeko mugimenduek estatuak eraisteko ekimena ez da definizio horietako batean ere sartzen. Ez dira iraganaren aurka borrokatzen, orainaren kontra baizik: erro historikoa duten baina oraindik ere gure artean dauden zenbait maisu eta arauri uko egiten diete, sozialki kaltegarriak direlako. Gaur egungo homogeneousazioa eta berdintasun eza aldatu nahi dituzte, ez iragana.

ONDAREA ULERTZEA

Erasoa jasan duten estatuak ondarea dira, esanahi kolonial sakona dutenak. Horregatik, beharrezkoa da gogoeta egitea ondareak orainaldian duen zeregin aktiboari eta funtzio soziokulturalari buruz.

Azterketa historikoa gauza bat da, eta ondarea beste zerbaite. Zorroztasun historikoak laguntzen du garai eta kultura bakoitzeko balio- eta sinesmen-sistemak ulertzen. Horri esker badakigu ez direla ezer desagerrarazten ari; iragana ez da oraina. Orainaldi honetan jakin behar dugu iraganetik zer nahi dugun eta zer ez dugun nahi, gure balioak eta sinesmenak ez direlako garai batean izandako berak. Egungo ideiei kasu eginda diogu jada ez diegula espazio publikorik eman nahi, zaharkituta geratu diren iraganeko irudiei, ez ditugula gehiago legitimatu nahi.

Gogoeta interesgarria partekatu zuten Granadako unibertsitateko bi irakasle uztailen *Público* hedabidean argitaratutako artikulu batean: "Estatuek heriotza-datarik ez dutela? Irudikatzen dutenaren erruz duintasuna zapalduta sentitzen dutenekin baino, estatuarekin sentitu behar al dugu identifikatuago?".

Halaxe da, behartsuenen eskubideak eta duintasuna estatuarekin dituztenen gaitetik daude, areago estatuak gorazarre



egiten badio pertsonen bizitza kaltetu zuen pertsona bati. Espazio publikoa moldatzeak eragin zuzena du pertsonen duintasunean.

Hori dela eta, ondareak beti etengabe-ko hausnarketaren eta kritikaren menpe egon behar du. Ondarearen esanahia eta forma birmoldatu behar dira, parez pare talka egiten badu gizarte berdinzaleagoa eta bidezkoagoa lortzeko borroka materialarekin edo sinbolikoarekin.



"Berriz bagara",
Kolonbiako Cajibío herrian
2020an egindako murala.

IKUR HISTORIKOAK EDO BOTERE-IKURRAK?

Alfredo González-Ruibal arkeologoaren ikuspegiz, estatuak historiarekin baino boterearekin dute lotura handiago. Richard Drayton historia irakasleak azpimarratzen duenez, estatuak eraikitzea boteredunek abiatutako ekimen patri-moniala da beti.

Estatuen bidez, boterearen inklusio sinbolikoa indartzen da espazio publikoetan. Draytonek proposatzen duenez, gaur egun ez da beharrezkoa orduko boterearen intrusioa errespetatzen jarraitzea; ez dugu betiko kontraturik sinatu. Paisaia oro, hirikoa zein landa eremuko, etengabe ari da aldatzen, han bizi diren eragileek bultzatuta. Unean uneko berezko baldintza eta balioek bultzatzen dute aldaketa. Horregatik, egun kolonialismoa eta arrazakeria baztertzen badi-tugu, ez al da jada gure hiriak eraldatzeko garaia?

Horrekin ez da iragana suntsitu nahi, baizik eta berrirori negoziatu orain nahi duguna. Askotan, esaten dena baino garrantzitsuagoa da esaten ez dena, eta, ondarearen edo historiaren kasuan, batzuetan, garrantzitsuagoa da isiltasunak ulertzea eta aintzat hartzea.

ERORIEN HARANAREN ADIBIDEA

BLMren kasua gure testuingurura ekartzeko baliagarria da Erorien Haraneko kasua [Francisco Franco diktadoreak Espainiako Gerra Zibilean eroritako frankisten omenez Madrilen eraikitako monumentua]. Historiako profesionalek ez dute zalantzarik izan ondare horrekin oso bestelako modu batean erlazionatzeko: diktadorea lurpetik ateratzea eta ondare-multzo horri izaera aldatu edo birmoldatzea izan dira proposamenetako batzuk. Ahaztu gabe, eraikin horren oinarri ideologiko kezagarria agerian uzteko, artista batzuek *in situ* egindako ekintza sinbolikoak –Francoren hilobian bakearen usoa eta “askatasunagatik” zioen pintaketa kasu–.

Eztabaida horretan, sektore kontserbadoreak ondare horren defendatzailer bihurtu dira, haien ustez, iraganean sortu zen bezalaxe, bere horretan, gaur egun ere iraun behar duelako, beti-betiko. Sektore horrek ondare horri izaera aldatzeko ahaleginak gaitzetsi ditu, moldaketa bultzatzen dutenak negazionista, mendekuzale, errebisionista edo talibanen parekoak direla esanez.

Orain pertsona batzuk, historialari batzuk barne, estatuak eraisteko ekimenen aurka agertu dira. Estatuaren eta Erorien Haranaren inguruko eztabaidaren erroa berbera da, baita legitimoa ere. Baina, egia da, ekintza sinboliko horiek ez direla nahikoa arrazakeriaren moduko bazterketak betikotzen dituen sistema aldatzeko. Malcolm X-ek esaten zuen hori. Baina hasteko modu bat da.

IRAGANAREN GORAZARREA DESAGERRARAZI, EZ IRAGANA BERA

Gure ekintzek ez dute historia berregiten, horren parte izango dira. Estatua kolonialak kentzeak ez du iragana desagerrarazten, ondare kolonialari eta arrazistari gorazarre egitea geldiarazteko modu bat da.

Estatua batek, dela espazio publikoan, dela ibaiaren ur azpian, dela museoan, ondare izaten jarraitzen du. Historiaren begietan aldatuko den gauza bakarra ondokoa da: ondare horrek izan behar duen presentziari buruz gizar-teak hartutako erabakia. Herritar guztientzat ikusgarri mantenduta ala ez, ondarea izango da, eta harekin harremanak izateko moduak askotari-koak direla islatuko du.

Orainarekin nolako harremana izan nahi dugun erabaki behar dugu, hemen eta orain, haren ondare ideologiko eta patrimoniala legitimatuz ala ez. Eta ñabardura gehigarri bat hartu behar dugu kontuan: protestak ez dira arrazakeriaren aurkakako soilik. Antikapitalistak dira. Ez da kasualitatea mugimendu hau sortu izana noiz eta sistema kapitalista tentsio handiko uneen eta balizko mutazio batean dagoela. Bidezkoago eta berdinzaleagoa izango den orainaldiaren alde, ondarea berriz ere negoziatzea ekintza legitimoa da; eta espero dezagun aldaketa sozioekonomikoak gertatzeko ere baliagarria izatea. ●

Pablo Barruezo Vaquero ikertzailea da Glasgowko unibertsitatean (Eskozia) eta ikerketako laguntza teknikoko langilea Granadako unibertsitatean (Andaluzia).

Jatorrizko artikulua *The Conversationek* argitaratu du eta Creative Commons lizentzia libreari esker ekarri dugu.

GOTORLEKUAK UZTEKO GARAIA DA

Bistan da azken asteetan eman den EAEko eskola publiko eta kontzertatuaren arteko eztabaidak sare sozialak eta euskal prentsa astindu dituela, "Eskola Publiko vs. Ikastolak" eztabaida interesatura oso bideratuta egonik. Noiz eta EAEko Eskola Publikoko eragile batzuek topagune baten aurkezpena egin dutenean Eskola Publikoa balioan jarri, pribatizazio politikak salatu, baliabide gehiago eskatu eta EAEko hezkuntza sistema birpentsatu behar dela adierazteko.



IRATI TOBAR EGUZKITZA
FEMINISTA ETA SINDIKALISTA

Esan bedi, Eskola Publikoaren defentsak ez duela Ikastolen kontra edota Kristau Eskolen kontra egiten, ezta Eskola Publikoaren zatitza baliabide ekonomiko, pertsonal eta material gehiago eskatzeak ere. Kontrakotasunik egitekotan, EAEko gobernuari egiten dio baliabideen banaketa neoliberalagatik. Aldekotasun horrek ez ditu espainiar zein frantziar hezkuntza sistemak zilegi bihurtzen; ez dezagun ahaztu sistema horietatik salbu ez dagoela ia inor –esango nuke desobediencia ariketa soilik Seaskak eta toki-proiektu txiki batzuek egiten dutela egun–, curriculum inposatua eta ebaluazio irizpideak izaera ezberdinetako ikastetxeetan betetzen baititugu, inposizioz bete ere. Urrun geratu zaizkigu sistematik kanpoko praktikak, klandestinitatean gure amonen etxeetan sorturikoak.

Hau esanda, norbanako eta eragile ezberdinok, elkarrekin, galdera potolo batzuei erantzuteko unea dela iruditzen

zait. Zorionez, haietako batzuk, LAB sindikatuaren baitan emandako eztabaida kolektiboetan askatzeko aukera izan dut:

ZER NAHI DUGU?

Euskal Herriko Hezkuntza Sistema propioa eraikitzea. Besteak beste, burujabea, askatzailea, feminista, anitza, inklusiboa, antiarrazista, kritikoa, doakoa, laikoa, herritarra, unibertsala eta integrala izango dena.

Hezkuntza sistema horren oinarri, bi hezkuntza-sareen sistema gaindituko duen eskola sare bakarra izatea. LAB sindikatuan Euskal Eskola Publiko Komunitarioa izena eman dioguna, askotariko auzo eta herri eskola autogestionatuz osaturikoa litzatekeena.

Euskal Herriko publikotasun eredu herritar, autogestionatu, komunitario batean oinarritua eta diru publiko osoa finantzatua herritar guztientzat.

Hezkuntza Sistema propioa eta Eskola Sare bakarra eraikitze bidean, bidelagun

askorekin akordioak lortu eta kaleak hartu beharko ditugula jakitun, geure buruei galdera interesgarri bat egitea proposatzen dut:

NONDIK HELDU NAHI DIOGU HONI GUZTIARI?

Beste zerbait eraiki nahi badugu, argi dago gure egungo posizioetatik mugitu beharko garela, deserosotasunak izango ditugula eta kontraesanak ez direla faltako.

Euskal Herriak bizitako gatazka politiko-armatuaren jo-puntu izan da hezkuntza ere bai, asimilazio prozesu baterako tresna nagusia. Hezkuntza eremuan gertatutakoaren memoria eta aitortza ezinbestekoak ditugu; Ikastolen mugimenduaren lanaren aitortza eta Eskola Publikoetatik erresistentzia zein beste eredu baten aldeko lana egin dutenen aitortza ere bai.

Publikotasun prozesu inposatu konkretu batek areagotu zuen gatazkan ikasle ginenon belaunaldia da nirea; iragana ahaztu gabe, lorpenak balioan jarri eta bide berriak proposatzea dagokigu. Norberean gotortzeak, beste hezkuntza sistema eta eredu propio bat eraikitzeke helburutik aldentzera soilik garamatza.

Gurean erresistentziak eta lorpenak asko izan badira ere –berezik hizkuntzaren alfabetizazioari zein euskal kulturaren transmisioari dagokionean–, aurreko mende erdialdeko erantzunek ez digute egungo galderak erantzuteko baliu. Egundak, sistemak sortutako herritartasun eredu eta segregazioek zeharkatzen gaituzte hiri, herri, auzo zein eskoletan, eta hori eraldatu nahi dugu!

NOLA EGIN?

Gotorlekuak zein botere-kuotak utziz beste hezkuntza eredu eta sistema pro-

pio baten alde bide berriak arakatu nahi ditugunok, kontraesanez eta zailtasunez beteriko bidea urratu behar dugu, "nola egin?" galderari erantzunez lehenbizi. Bide honetan, hezkuntza eskumenak –zatituta gauden hiru administrazioetan– eskuratzeko borrokak eta ekimenak ezingo dira falta. Euskal Herriaren burujabetza prozesuaren parte aktibo izanez, praktika propioak eraikiz, botere guneak eskuratzu eta komunitate kritikoak antolatuz. Posible da trantsizio honetan aurrera egitea?

Desobedientzia hezkuntza sistema inposatuaren aurrian! LOMCE aplikatu nahi izan zutenean, herri bezala erantzun eta errebalidei planto egitea lortu genuen. Erasoei erantzutearekin batera, beste eredu propio hori eraikitze bideak jorratu behar ditugu. Ebaluazio irizpideak –zein azterketak– bazter utzi, XXI. mendeko euskal herritar anitzak hezteko curriculum propioa sortu eta tokian toki aplikatu.

SEGREGAZIOARI AURRE

Segregazioei aurre egiteko neurri eraginkorrak bultzatu eta exijitu behar ditugu. Tokiko errealitateetatik herri-tartasun eredu neoliberal-patriarkal-arrazista gainditu behar dugu. Gure hezkuntza komunitateak harrera gune izan behar dira, anitzak eta inklusiboak; ghe-ttorik ez dugu nahi.

Hizkuntzagatik, jatorriagatik, arrazagatik, klaseagatik, generoagatik zein erlijioagatik bereizten duen sistemarik ez dugu nahi. Horregatik, diru publikoz finantziaturiko sare eta eskolei neurri zehatzak eskatu behar dizkiegu, administrazioari beste politika batzuk exijitzearekin batera: matrikula bizirako plazak izaera ezberdinetako ikastetxeak izan ditzaten derrigortzea, lurralde ordezkari-zei bestelako antolaketa bat exijitzea, tokiko instituzioek eskola mapak egin eta hezkuntza-mahaiak osatuz matrikulazioa bideratzea, mankomunitate eta tokiko instituzioek hezkuntza antolatzeko eskumen gehiago eskuratzeta eta itunduak diren ikastetxeetan kuotak desagerraraztea.

Eskola komunitateetan eragin beharra dago. Auzo eta herrietan integraturik egon behar dira eskolak, eredu gerentzialik gabe, langile egonkorrekin eta proiektu sendoekin. Herri kohesioa bultzatuz, jendartearen dagoen aniztasu-



ONHERRI

naren isla izanik. Zuritasuna deseroso bihurtu behar zaigu. Garai batean sexuen arabera bereizten zuen eskola gaur egun anakroniko eta onartezina deritzogu. Arrazaren, klasearen zein hizkuntzaren arabera bereizten duen eskola –itundu zein publikoetan– noiz bilakatu-ko zaigu anakroniko? Bilakatu dezagun euskara harrera hizkuntza, exijitu dezagun euskaraz alfabetatzeko doakotasuna eta eskoletan ere, hala jardun gaitezen baliabideak behar dituen berariazko harrera planekin.

Euskal Herriko mugimendu feministan ikuspegi dekoloniala landu nahian ditugun hausnarketak ekarri ditzagun hezkuntza eremura ere. Konfort egoera honetatik atera behar dugu, erosotasunean aurrerapausorik ez dago. Boterearen analisi kritiko bat egin behar da, sistemak eragiten duen zapalkuntza anizkoitzen sisteman kokatuz; agenda komun bat zabaldu beharra dago, zapaldu-zapaltzaile garena onartuz; pribilegioen ardura hartu behar dugu. Sistemak ez du era berean kolpatzen pobrea den emakume migratzailea edo abertzalea den langilea. ●

“Hizkuntzagatik, jatorriagatik, arrazagatik, klaseagatik, generoagatik zein erlijioagatik bereizten duen sistemarik ez dugu nahi. Horregatik, diru publikoz finantziaturiko sare eta eskolei neurri zehatzak eskatu behar dizkiegu, administrazioari beste politika batzuk exijitzearekin batera”

Sark, Europako azken lurralde feudala



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Mantxako kanala, 1565. Elisabet I.ak Sark uhartea feudo izendatu eta Helier de Carteret Jerseyko Saint Oueneko jaunari eman zion. Bost kilometro koadro inguruko irlatxoa hutsik zegoen garai hartan, ofizialki behintzat. Erdi Aroan hainbat komunitate monastikoren bizitoki izan arren, XV. mendetik aurrera piraten babesleku izan zen eta, beraz, kontzesio horren bidez, erreginak piratak uxatu nahi zituen. 40 lursail mugatu eta beste hainbeste familia ezarri ziren Sarken, jaun feudal berriaren agintean, eta piraten gotorleku izandakoa, erregimen feudalaren gotorleku bihurtu zen; 2021 honetan Sarkeko gobernua Christopher Beaumont Sarkeko 32. *seigneur* edo jaunaren esku dago oraindik.

XVII. mendean, 40 familia maizterrek ahaleginak egin zituzten uhartean sistema konstituzional bat ezartzeko, kanaleko beste irla batzuetan edo, adibidez, Jersey gertatu bezala, baina ez zuten aldaketarik lortu ez orduan eta ez handik aurrera. Nekazaritzaz bizitzen jarraitu zuten. XX. mende bukaeran uhartean turismoa ustiatzen hasi ziren arren, jarduera eta horren etekina kanpokoen esku zegoen eta dago oraindik. Azken urteotan, David eta Frederick Barclay anaiek, besteak beste *The Daily Telegraph* egunkariaren eta *The New Yorker* aldizkariaren jabe milioidunek, kontrolatzen dute uharteko jarduera ekonomikoa.

2008an egin ziren lehenengoz hauteskundeak Sark uhartean. Erresuma



JERSEY EVENING POST

Batuko Kontseiluak apirilean onartu zuen uhartearen lege erreforma. Horrenbestez, sistema feudala abolitu zuten, ofizialki. Baina Sarkeko maizter zaharrek salatu zuten praktikan ezer gutxi aldatu dela: Sarkeko jaunak agintean jarraitzen du; sistema berriak ezarritako seneskal kargua bizi osorako da eta, horregatik, diktaduratzat jotzen dute; eta zerga-sistema berezia ez da ia aldatu, hau da, Sarkek paradisu fiskala izaten jarraitzen du, Barclay anaiei eta antzekoen mesedetan.

Badirudi azken urteetan Sark hustutzen ari dela. Datu zehatzik ez dago, azken errolda ofiziala 1970eko hamarkadan egin baitzen –492 biztanle zituen orduan–, baina irla birpopulatzeko

ekimenek “basailuak” alde egiten ari direla adierazten dute. Esaterako, Swen Lorenz alemaniar enpresarioak “biztanle” berriak erakartzeko kanpaina abiatu du. Uharteko bizimodu lasai eta ekologikoa saltzen du bere webgunean; irlara soilik itsasontziz iritsi daiteke eta bertan ez dabil motordun ibilgailurik. Baina, beste ezaugarri batzuk ere azpimarratzen ditu: “zerga minimoak”, “gobernua gehiegizko erregulaziotik aske izatea”... Eta mezua ez dio edozein herritarri luzatzen, “enpresarioei, inbertitzaileei eta libreptosalariei” (sic) baizik.

Beraz, Sarkek Europako azken lurralde feudala izateari utzi dio, eta jauntxo berrientzako feudo bihurtu da. ●

Hominidoek ere hibernatzen zuten?

Hibernatzen duten ugaztunen hezurrek lesio eta ezaugarri bereizgarriak izan ohi dituzte, neguko hilabeteetan metabolismoa mantsotzearen eta lotan egotearen ondorioz. Bada, Atapuercako giza hezurretan hartzek, saguzarrek edo trikuiek izan ohi dituzten lesio eta kalte berberak topatu dituzte, Juan Luis Arsuaga eta Antonis

Bartsiokas paleontologoek *L'Anthropologie* aldikarian argitaratu dutenaren arabera. Duela 400.000 urteko hominidoek “negu hotzetan, luzaroan, janari gutxirekin eta gorputzeko gantz erreserbei esker bizirik irauten laguntzen zieten egoera metabolikoak” zituztela irudikatzen du horrek, hau da, gizaki haiek hibernatu egiten zutela. ●



ATAPUERCA.ORG

ARGIAKO LANTALDEAN KIDE BERRIA: PELLO BASURTO



DANI BLANCO

Harrobia sendotzen (II)

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Bigarren atala duzu hau. Bigarren parteak sekula ez omen dira onak izaten, baina kasu honetan araua hausteko intentzioz gatoz beste fitxaketa berri baten artikularekin. Urtea hastearekin batera heldu dio ARGIAK eskaintako erronka berriari Pello Basurtok, kasu honetan arlo komertzialean. Ez duzu, beraz, astekar-ian bere sinadurarik ikusiko, baina astekariaren atzean dauden lanetan bere eskua sumatzea espero da.

ARGIAN hasi berria zara baina ez kazetari moduan. Zein izango da zure lana?

Komertzialaren lana. Arlo horretan ariko naiz ni, publizitatea eta proiektuaren ezagutza gertutasunetik landu nahi da eta lan-karga bat egongo dela aurreikusita sartu naiz taldean. Oraindik nire betebeharrak guztiz zehaztu gabe baditugu ere, lanetako bat izango da ARGIAren arlo komertzialeko sarea indartzea; proiektu honengandik gertu egon daitezkeen enpresa eta eragileak erakartzea eta, nolabait, eurak ere proiektuaren parte sentiaraztea.

Ez du erraza izan behar leku berri batera iritsi eta proiektu hori saldu behar izateak.

Tira, proiektua bera ez zait batere arrotza egiten. Betidanik naiz ARGIAren irakurlea eta gertutik jarraitu izan dut, interesgarria iruditzen zaidalako bertan lan egiteko modua. Badakit taldean lan egiteko joera dagoe-la eta, uste dut, hori dela proiektuan guztiz murgiltzeko, motibatzeko eta gustura lan egiteko era. Bestalde, arlo komertzialean aritua naiz lanean *Iruxuloko Hitza* eta egoki ikusten dut nire burua eginkizun horretan.

Iruxuloko Hitza aipatu duzu maila profesionalean. Baina herri mailan ere baduzu esperientzia pixka bat, ezta?

Bai, akaso ez horrenbeste ARGIAN be- teko dudana lanari zuzenean lotua, or- dea, esango nuke lan egiteko modue- kin baduela zerikusia. Donostiarra naiz, Ibaeta auzokoa eta bertako jai batzordean zein auzo dinamiketan ibiltzen naiz. Donostiako herri mugimendu ezberdinetan parte hartzen dut aspalditik, Donostiako Pirateta- ko partaide naiz, adibidez. Betidanik bertsozalea, eta Añorgako bertso es- kolako kide ere banaiz.

Egunerokotasunean, sinesten du- dan proiektuetan lan egitea gustatzen zait eta ARGIAren eskaintzari ere ho- rregatik eman nion baiezkua. ●

ONGI ETORRI KOMUNITATERA!

Arazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!



"Lankide batek bultzatuta eman dut pausoa, aspaldian emateko gogoz bai baina tarterik ez dut hartu izan. Informazioa eta bere kudeaketa egokia ezinbesteko jotzen ditut, are gehiago, gaur egun bizi dugun danbateko sentsaziope honetan".

Beasaingo Ruben

"Euskarazko hedabide independentea delako".

Bilboko Igor

"Atzerrian bizi nazela, euskeraz irakurri ahal izateko eta euskera eta Euskal Herriegaz lotura hurbilagoa mantentzeko.

Eta noski, euskeraz idazten duen kalitatezko argitalpena sustatzeko! ^^".

Igorreko Iraide


"Kazetaritza independente, kritiko, eraikitzaile, eraldatzaile, herrigile eta euskalduna bultzatu, indartu eta nola ez, irakurri ahal izateko. Biba zuek!".

Anoetako Egoitz

BAREALDI GOZOAN, BURDIN HOTSAK

Inausketa sasoia hemen da. Gaur egun azaroan hasten da gudari plantak hartzen dituen moztaille jendea bere guda partikularrarekin.

Udazkeneko eta neguko egun motzak datozelako usaina hartzen dute zuhaitzek udaren hasierako egun luzeenetan, udako solstizioan, ekainaren amaieran. Orduan eguna moztzen hasten da, eta zer datorkien jakinaren gainean hila-beteetako lana hartzen dute egun motzetako loaldirako prestatzeko. Udako egunetan ahalik eta erreserba gehien metatuko dute. Fruiturik badakarte, usain, kolore eta forma ederrenez janzten saiatuko dira, haien baitako haziak hedatu behar dituzten jaleentzako erakargarri. Hazi horiek ahalik eta gizenenak (jakiz betez) eta babestuenak (azalez ondo bilduz) atonduko dituzte; min edo zuhaiztto berria sortu arteko bidaia harrigarriarako gaitu daitezten. Era berean, ahalik eta energia gutxiena xahutzeko hostoetan duten elikagai mordoak hustu eta bere baitaratuko dute, erreserbak tototuz. Hostoei luzeago eutsi ezinik direnean, lohadarra galtzean bezalako zauria utziz partitzen dira, eta manka-manka egindako zuhaitz ama zaurituek, burubide-emaike apartek, azken anparoa erregutzen diete: pausa daitezela etengabe elikatu dituzten sustraiei lur sailean, arimak



eginda orbel direnean neguko hotza urrunduko baitute eta usteldutakoan udaberriko izerdi berria gozatuko duen jatena izango baitira; ekonomia zirkularra diote modernoek, amonaren alabaren alaba ama egiten denekoa. Eta hostoek utzitako zauriak itxiko dituzte. Gero, hurrengo urtean kimu berrietan eta loreetan irekiko diren begiak ez-kata babesgarriekin gotortuko dituzte, hotz eta izotz zorrotzek sastakatu ez ditzaten. Eta lotara, negutzeroa, hartza leizezuloan bezala edo soro-muxarra



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

pago motzaren (*Fagus sylvatica*) zuloan edo baratze-saguzarra habetzarraren zirrikitan. Negutzeroa, udaberri-udako urrats bizi-bizia lasaitu eta baretzeroa.

Barealdi horretan abiarazten ditugu zerra motordunak eta motozerrak, zorrozten dira guraizeak eta entrama ematen zaie kodainei eta zerroteei. Barealdi gozoan, burdinen burdin hotsak: guda. Eta zuhaitzak lo.

Inausteka sasoiaren hemen da. Gaur egun azaroan hasten da gudari plantak hartzen dituen moztaille jendea bere guda partikularrarekin. Zuhaitzen sena makurrarazi eta beraiek nahi duten formara eta tamainara lotu eta behartzeko guda. Eta guda guztien arrazoibide berak baliatu eta zazpi haizetara astintzen dituzte: denon onerako da; zure segurtasuna zaintzen ari gara; guk badakigu, utzi gure esku, zu lasai. Eta, guda guztietan bezala, denok gara galtzaile. Gudetan irabazten dutenak betikoak dira. Oinarria beldurra da, beldur ziztrin bat: hostoek kaleak zikintzen dituzte.

Gaitzerdi, zuhaitzek kalteei buelta airosoago eman diezaieten, moztailleek mozketa edo epaiketa lanetarako sasoi egokira itzarongo balute, epailera, epaien ilargira, martxora... ●

ESTAKUA BASERRIA

BEHI-ESNE EKOIZPENEAN
ERRELEBOA HARTUTAGARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Mallabiko Aitzol Uriarte Ibarzabal dago Estakua baserriko jogurten atzean: “Aitak eta amak esne-behiak izan dituzte beti gurean, eta ni aurretik beste lan batzuetan ibili naizen arren, duela bi urte eta erdi inguru jarduera honetan hasteko erabakia hartu nuen”. Gurasoek behi gehiago zituzten lehen, baina egun hamazazpi bururekin egiten du lan Uriartek. Abereak larrean libre izaten ditu ahal bezain beste, eta esnearen zati bat kanpoko enpresei saltzen badie ere, beste zati batekin etxean bertan jogurtak egin eta zuzeneko salmentaren bidez merkaturatzen ditu.

EKOIZPEN TXIKIAREKIN NOLA
LORTU ERRENTAGARRITASUNA?

Azken urteetan gurasoek ekoizten zuten esnea kanpora saltzen zuten, baina etxean bertan eraldatzearekin errentagarritasun handiagoa lortuko zuela pentsatu zuen Uriartek, eta horrela hasi zen jogurtak egiten: “Baserrian jarri genuen eraldaketa gunea duela bost bat urte, parlamentuan erregistro sanitarioaz aparte, ekoizpen txikietara egokitutako arau malguagoak onartu zituztenean”. Modu horretan, inbertsio ez hain handiarekin eraldaketa prozesurako osasun baldintza guztiak betetzea lortu zuen mallabitarrek, eta geroztik, hilean 800



jogurt litro inguru ekoizten ditu.

Eraldatze gunea egiteko malgutasunik izan ez balu, beste bide batetik jo izango zuela uste du ekoizleak. “Erregistro sanitarioak inbertsio handiak eskatzen ditu, ez baitago ekoizpen txikietara egokitua. Horretara derrigortua egon izan banintz, dirutza handia jarri behar izango nukeen, eta horrek arrisku handia dakar”. Momentuz jogurtak soilik egi-

ten ditu, baina etorkizunean esnea botilatan saltzen hastea ere bada bere asmoa: “Pixkanaka eta pauso txikiak emanez doa proiektua aurrera, eguneroko lanak denbora eta indar asko kentzen baitigu”.

AGROEKOLOGIAREN BIDEAN

Hurrengo urteetan eredu ekologikorako pausoak ematea da Uriarteren helburua: “Asmoa ez da ziurtagiria lortzea soilik. Esaten dugu agroekologiaren bidean inoiz ez dela helburura iristen, beti dagoelako zer hobetu”. Bada, bide horretan sakontzea du erronka ekoizleak. Dena den, proiektua martxan jarri zutenetik saiatu da ingurumenarekiko eta animaliekiko errespetuan oinarrituta lan egiten: behiak larrean izaten dituzte eguraldiak uzten dien bitartean –aurten Gabon bezpera arte kanpoan egon dira–, transgenikorik gabeko pentsuekin elikatzen dituzte eta ez dute antibiotikorik erabiltzen.

Jogurtak merkaturatzeko zuzeneko salmenta lehenetsi du mallabitarrek: “Baserrian bertan eta inguruko herrietarako denda txikietan saltzen dugu produktua, eta beraz, oso hurbileko harremana dugu bezeroekin”. Inguruko kontsumo taldeetara ere eramaten dituzte, eta elikaduraren eta nekazaritzaren bueltan sortzen ari diren mugimenduekin badute harremana. ●





“ ”

Ahots bakoitza norberarena da soilik, eta oso egiazkoa da

Peru Galbete

Uhartetik (Nafarroa) Usurbilera etorri da Peru Galbete (1989, Usurbil), gabonetako baimen bereziak probestuta. Bere txikitako etxean elkartu gara, han bizi ez den arren, bertan grabatu baitu *Nor Zara Zu?* disko-liburuaren zati bat. Artista bisuala eta esperimentalak, zarata asko egin gabe asko esateko gai dena. Ez da irratia eta sare sozialetako *trending*-a izan Mukuru Kolektiboarekin 2020an kaleratutako lan zoragarri hau. Autogestioak ez du oihartzun gehiegi lortzen, badakigu. Edozein kasutan, pandemia-urteko euskal disko hoberenatarikoa kaleratu du usurbildarrak: melodia suabe, jostari, argitsu eta bareekin osatuz letra sarkor eta gogoetaz betetakoak. Isolamenduaren eta menpekotasunaren urteari aurre egiteko edertasun dosia. Nor garen gogoetatzen lagunduko diguna.

Konfinamenduari aurre egiteko moduko diskoak kaleratu zenuen iaz. Nolatan?

Boliviatik itzultzean, duela hiru urte luze, hasi nintzen diskoan pentsatzen. Beti nabil kantueta-rako ideiak grabatzen eta gordezten, denbora ematea gustatzen zait jakiteko ea zenbat aldatzen diren. Konfinamendu aurretik jada banituen kantu batzuk grabatuak nire gurasoen baje-ra honetan, eta konfinamendua amaitutakoan kaleratzea erabaki nuen. Gogo handiz harrapatu ninduen, eta horri esker zentzua eman nion [Diskoko seigarren kanturako pandemiari buruzko asper-solasa “lapurtu” zien Galbete bizilagun batzuei, 2020 madarikatuan kokatzeko baliatuz lana].

Disko-liburua da, eta hor dituzu marrazki mordoa hainbat Peru posible erakusten-edo. Galdera ikurretik harridura ikurrera igarotzen da une batean: nor zara zu! Aldarrikapen beharra al da?

Egia da nahiz eta metaforak erabili eta denontzat baliagarriak diren gogoetak egin, kantuek beti dutela autobiografikotik, nire esperientziaz ari naiz eta. Kasu honetan izenburua ondoren etorri da, denboran zehar garatutako kantuei bateratasuna ematean. Edozein kasutan, denok egiten dugun edo egin beharko genukeen galdera transzendentalak da “nor zara?”, eta erantzuna aldatuz doa.

Gai sakonak ohikotasunekin nahasten dituzu hitzetan, “noizean behin solariumera” joaten den jendearen kontuekin adibidez.

Badut alde ilun moduko bat, eta horra jotzeko ohitura daukat. Oraingoan musikarekin bereziki saiatu naiz aldentzen hortik, beste bizi bat ematen.

Disko alaia da nire ustez.

Nire iritziz ere bai, baina uste dut saiatu naizelako izan dela hala. Esfortzua egin dut alaia izan dadin.

Alaitasuna dantzalekuen musikarekin lotu ohi dugu. Bonboak, baxu erritmikoak eta abar. Baina kasu honetan instrumentazio oso sotila erabili duzu, txarangoaren gisakoak adibidez. Alaitasun lasai moduko bat.

Bai, oreka hori aurkitzen saiatu naiz argia emateko. Izan ere hitzak bakarrik hartuz gero beste tonu bat dauka lanak. Instrumentuen aukeraketarekin lasaitasun eta dizdira hori bilatzen saiatu naiz.

Musikaz gain, liburuan marrazki eta poema laburrak gehitu dituzu.

Niretzat disko bat egitea daukadan guztiari bide emateko aitzakia da, eta horrela otu zitzaidan. Duela pare bat urte hasi nintzen marrazkitxoak egiten eta hortik nituen. Gaur egun asko entzuten da digitalki, eta erosteko orduan nik behintzat eskertzen dut zerbait gehiago egotea, ez plastikozko CD bat eta listo. Horri garrantzia eman nahi izan diot, eta nik neuk diseinatu dut liburua bera. Marrazkiak eta letrak irekiak dira hala ere, norberak eman nahi dien zentzua dute, eta hori da garrantzitsuena.

Edozein kasutan osotasuna duen obra da.

Bai, egia da pieza solteak ziren arren gero josten ibili naizela; lan handiegia hartu dudala uste dut. Errazagoa litzake *single* bidez egitea, baina asko gustatu zait lan hau.

Osotasun horrek zein zentzu du zuretzat?

Egiten dudan lanarekin gustura gertatzea da nire asmoa. Osotasun horrek konfiantza ematen dit. Ez dut pentsatzen zenbat iraungo duen edo zenbatengana iritsiko den, behin kaleratuta ni beste zerbaitetan jartzen naizelako. Artistari gustatu behar zaio egiten duena.

Baina artistak bilatzen du beste zerbait ere.

Bai, baina lehenik norberarekiko. Nik musika bizi dut gizarte honetatik gusztatzen ez zaizkidan gauza askotatik alde egiteko bide gisa. Alde egiteko edo beste gauza batzuk sortzeko. Eta hortik abiatuta badago kritika asko, auto-kritika asko. Nik neuk behar pertsonal batek bizi eta egiten dut musika; hor uzten dituzu zure melodiak, zure metaforak, eta beste norbaitentzat baliagarriak ba-

dira primeran. Ez nuke esango musikak mundua aldatu dezakeenik, baina norbera bai, eta hortik hasten da.

Bakarrik egin duzu lan hau, baina ez zaude bakarrik. Mukuruko lagunekin kaleratu duzu.

Musika batzuetan oso bakartia izan daiteke, baina ez du zertan hala izan behar. Nahiko bakarrik bizi gara eta horregatik laguntasunezko harreman batzuetatik tiraka sortu da. Lagunekin musika egitea geroz eta garrantzitsuagoa da. Zentzu gehiago ematen diozu egiten duzunari, norbait ondoan beste zerbait egiten ari bada.

“ ”

Oso garrantzitsua da niretzat musikaren barruan aldatzen joatea. Hori merkatuaren kontrako zerbait da, gustukoa errepikatzeko joera baitago

Hatxerekin kantuan zabiltzanean “ahotsa bakarrik ateratzen” zaizula zenioen. Ahots inprobisazioa da jorratzen ari zaren beste bide bat.

Oso garrantzitsua da niretzat musikaren barruan aldatzen joatea. Hori merkatuaren kontrako zerbait da, gustukoa errepikatzeko joera baitago. Esperimentazioaren alorrak asko ematen dit niri, eta behar dut. Ahots esperimentazioekin Idoia Hatxe ezagutzean hasi nintzen, instrumentua albo batera uztean. Ahotsa oso primitiboa da, txikitatik duguna eta ez duguna asko lantzen, hitz egiteko ez bada. Galdera asko sortzen zaizkit hor, eta sakontzeko gogoia ematen didate. Hizkuntza baten fonetika, hitz zehatz batzuk gabe kantatzea, musikaren eta soinuaren abaniko zabal hori –garrasi batetik nota leun batetara–... hori lantzen gabilta Uharten lagun batzuen artean.

Ahotsak eskala baten barruan infinitu nota eman ditzake, unibertso berriak zabaltzeko.

Musika da bukaerarik gabeko ate batzuk zabaltzea. Konturatzerako beste gela batean zaude, eta gero bestean... nik uste kantutik hasi nintzela hurbiltzen. Denok bezala, txikitik kantatzen nuen, eta gero, denok bezala, utzi nion kantatzeari edo marrazteari. Ondoren berrartu behar izan dut. Eta oso lagungarria da kantatzea pertsonentzat. Kantu terapiak eta gauza asko daude...

Geroz eta gehiago ari naiz ahotsean zentratzen, eta uste dut denontzat dela onuragarria. Ohituta gaude kontzertu guztiak berdin egitera, eta horrek nekatzen nau: denak kantu berdinak, iraupen berdina... publiko bezala ere asko eskertzen dut arriskatzea, gustatu edo ez. Azken finean arteak planteatzen duena ez da gustatu edo ez –nik horrela bizi dut behintzat–, baizik eta mugiaratzea.

Musika eta abestea baliabide aberatsegiak dira kantu batera mugatzeko... Zure kantuak nahiko biluzik daudenez, ahotsaren ñabardurak gehiago antzematen dira.

Azken finean ahots bakoitza norberarena da soilik, eta oso egiazkoa da. Instrumentuekin zailagoa da esan nahi duzuna esan ahal izatea... Baina asko daukat hausnartzeko gai honen gainean oraindik. Uharten, esperimentazio taldean, eremu ezberdinetako jendea batzen aritu gara, teknika eta artista ezberdinak esploratzeko, baina ez gara konkretuki inora iritsi.

Liburura itzuliz, Artzeren eragina nabaria da zure lanean.

Bai, egon behar du. Bere liburuak irakurtzeak txoratu egiten ninduen. Pentsatzen nuen “hementxe ondoan bizi da eta, Kalearren”, eta han joan nintzen egun batean bere etxera, ezagutuzera. Aitzakia bilatu nuen, eta berari buruzko dokumentala egin nahi nuela esan. Hiru edo lau aldiz proposatuko nion gerora, baina berak argi eta garbi ezetz. Ulertu nuen berak ez zuela ezaguna izan nahi, bere obra ezagutaraztea baizik. Esan daiteke edaten dudala entzun eta irakurtzen dudanetik, eta Artze asko irakurri dut, hortik ibiliko da.

Txakur Gorria taldearen Loraldira-ko proposamenaren harira, H-Artzetik ikuskizuna egin genuen [hilaren

24an egingo dute emanaldia Gasteizeko Oihanederren], eta hor ere gogotik heldu genion.

Zinemagilea ere bazara. Urak hondatutako diapositibekin egin zenuen lan bat ezta?

Uholde bat egon zen auzoan ni haurra nintzela, eta dena hondatu zuen. Gura-soen diapositiba kutxa ere izorratu egin zen. Urteak pasata kutxa hori aurkitu

nuenean kuriositatea piztu zitzaidan. Oso eraldatuak zeuden eta banan-banan eskaneatzen hasi nintzen, 2.000 argazki inguru. Hori eginda bi proiektu posible ikusi nituen: diapositiba abstraktuena eta irudiak oraindik gorde-tzen zuten horri buruzkoa. Abstraktuenekin dokumentala egin nuen, eta Punto de Vista jaialdian aurkeztu zen. Auzokoekin egindako elkarrizketak eta irudi bitxi horiek nahasten zituen. Bes-

teekin *Uraren Oldea* izena duen lana egin nuen, koloretako diapositibak eta musika uztartuz.

Emakume musikariei, emakume musikari izateagatik, beti galdetzen diete eszenaren parekidetasunaren inguruan. Eta gizonei ez, guk erantzukizunik ez bagenu bezala. Zure lanak egiterako orduan ikusi zaitugu beste rol batzuetan, emakumeekin elkarlanean.

Bai, oso garrantzitsua iruditzen zait gaiaren gainean hausnartzea, baina baita ikusaraztea egiten ari garena ere. Hor ikusten dira elkarbizitzan ateratzen diren arazoak, egunerokotasunean. Emakumeen artean kristoren lanketa egiten ari dira horren inguruan [“Elkarrekin egon ginen” jardunaldiak, adibidez], ari dira ateratzen musikari interesgarri asko hor.

Baina ea, ni elkarrizketa batean hori buruz ari naiz, eta oholtza batera igo-tzen naiz abastera. Botere posizio bate-tik ari naiz dagoeneko. Batzuetan plan-teatzen dut ea zer aportatzen dudan nik, ea leku hori nik bete beharko nu-keen. Edozein kasutan, gaiari heltze-rako orduan emakumeen ondoan egon behar gara, euren proiektuak sostenga-tzen eta behar denean laguntzen.

Plaza betetzeko modu ezberdinak ere badaude.

Kontziente izan behar gara oholtza ba-tera igotzen garenean, ari garela eredu bat ematen. Izan lau katu edo ehun per-sona aurrean dituzunak, zuri begira daude. Kontzientzia hartu behar dugu gizonok, taula gainean ditugun portae-rez. Esaten da estiloaren arabera dela, baina nire ustez pertsonalitatea-ri lotuta dago eta landu egin behar du norberak, beste eredu batzuk garatu.

Taula gainean eta azpian.


Bai noski. Azken finean jakin behar dugu atzean egoten, batzuetan kosta-tzen den arren. Eta emakumeek proiektu-en gidaritzaz hartzen dutenean albo batera jartzen, eta bultzatzen, eta la-guntzen. ●

Zuzenean arituko dira taula gainean hiruko formatuan Idoia Arizaleta gitarran, Santi Etxeberria kontrabaxuan eta Galbete ukelelean eta txarangoan.

Gehiago ikusteko eta entzuteko:


perugalbete.com





LIBURUA

Denbora-bidaia emozionala



DANI BLANCO

VHS OIER GUILLAN

SUSA, 2020

AMAIA ALVAREZ URIA

A din batetik aurrera gaztetako oroitzapenei buruz hitz egitean “duela 20 urte” (edo gehiago) esanez hasi edo amaitzen dira kontakizunak. Kasu honetan hala gertatzen da, duela 23 urteko gertaerak zehazteko helburua duelako eleberriaren protagonistak. Izan ere, garai hartan eraiki zen gaur egungo bere nortasuna, bere bizitzako denbora-lerroan mugarri izan zen bidaia batean.

Esandakoengatik 1970eko hamar-kadan jaiotakooi oso ezaguna egingo zaigu liburu honetan topatuko dugun giroa: lagunentzako gustuko musikarekin grabatutako kaseteak edo gutun bidezko harremanak. Izenburuak ere orduko teknologiarri egiten dio erreferentzia, narratzaileak dioen moduan, “iraganaren metafora” izan daitekeelako VHSa.

Hasieran badirudi nobela beltz baten aurrean gaudela (ilehoria detektibe emozionalarengana doa hilketa bat argitzeko asmoarekin eta ikerketa abiatzen dute testigantza zenbait bilduz). Baina egileak poesiatik eta antzerkitik edaten du narrazio luze hau sortzeko, eta saia-kera ere agertzen da.

Interesgarria iruditu zaigu pertsona baten inguruko eta gertaera bati buruzko bertsio desberdinak aurkitzea, (hala ere, akaso leku gehiegi hartu du liburuan?). Protagonistak dioenez “memoria ariketa kolektiboa da”. Azken aldian asko hitz egiten da memoria historikoaz. Gehienetan, horren atzean Gerra Zibila eta Euskal Gatazka ditugu, eta esker-tzen da letra xehez idatzitako memoria historikoa egiteko saiakerak ere egotea, errealitatea erabiltzea fikzioa egiteko

eta fikzioa errealitatea kontatzeko.

“Nire gorputza denboraren makina bat da” esaldiarekin hasten da nobela eta tarteka errepikatzen da. Esaldi horretan biltzen da eleberri honen funtsa: ni-aren inguruan eraikita dago; alderdi sensorial, sexual eta emozionalak oso presente daude; ahazten eta gogoratzen dugunaren inbentarioa egiten dute; teknologia berriei buruz aritu beharrean, teknologia zaharrak agertzen zaizkigu; norberaren ispilu dira lagunak.

Pandemia eta elur sasoirako apropo- sa da liburu hau, (barne) bidaia egiten duelako oroitzapenetara mugikortasuna mugatuta dugun egunotan, eta ikerketa emozionala proposatzen digulako bizitako une erabakigarriei erreparatzeko. Hausnartzera eta birkokatzerara bultzatzen gaitu, umorea bazter utzi gabe. ●



MUSIKA

Beethoven gazteen eskutik

Hainbat lekutan eskaini ditu EGOk Beethovenen obrak. Argazkian Donostiako Kursaalaren emandako kontzertua ikus dezakegu. Lehen lerroan daude Jone Martinez sopranoa, Ruben Gimeno zuzendaria eta Eneko Sagardoy narratzailea.



EGO FUNDAZIOA

BEETHOVENEN OBRAK

**EUSKAL HERRIKO
GAZTE ORKESTRA**

ZUZENDARIA:

RUBEN GIMENO

BAKARLARIA:

JONE MARTINEZ (SOPRANOA)

NARRATZAILEA:

ENEKO SAGARDUY

GASTEIZKO PRINCIPAL ANTZOKIAN,
URTARRILAREN 3AN

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Beethoven-en musika zoragarriak (konpositorearen jaiotzaren 250. urteurrenean) eta Euskal Herriko Gazte Orkestraren (EGO) freskotasun eta bizitasunak ezinbesteko hitzordu bihurtu zuten aurtengo neguko topaketa.

Egia esan, Beethovenen urteurren hau apur bat nahasita geratu zen 2020an, denok ezagutzen ditugun zirkuntantzien ondorioz. Baina EGOn saio honek konpentsatu gintuen, nolabait. Programa oso egokia izan zen, ohikoak ez diren lanak jo baitzituzten. Bestalde, Jone Martinez soprano gazteak erreperitorio honetarako gaitasun bikainak erakutsi zituen, eta horrez gain, Eneko Sagardoy aktoreak narratzaile gisa egindako lana azpimarratu behar da.

Interpretatu zuten lehen lana, *Ah perfido!*, sopranoarentzako eta or-

kestrarentzako kontzertuko aria da, Beethovenek idatzia 26 urte besterik ez zituenean. Abeslariarentzat zailtasunez beteriko pieza da, eta protagonistaren maitalearen traizioa eta abandonua kontatzen ditu. Jone Martinezek ahots dohainak eta hainbat erregistrotatik pasatzeko erraztasuna erakustez gain, adierazkor eta ñabarduraz betea agertu zen. Orkestra, berriz, fin ibili zen une oro, bakarlariari adi eta fraseatze malgua eginez.

Une epikoa *Egmont*, *op. 84* obrarekin iritsi zen. Goethek idatzitako izen bereko tragedia irudikatzeko konposatutako musika intzidentaleko hamar piezako multzoa da, non *Egmont* heroi flamenkoaren bizitza eta bereziki Alabako hirugarren dukearekin izan zuen borroka kontatzen den, atxilotu, heriotza zigorra ezarri eta burua moztu zioten

arte. Independentziaren alde eta bere herrialdearentzat monarkia espainiarrak suposatzen zuen zapalkuntzaren aurka borrokatzeko ideala aldarrikatzen du protagonistak.

Musika deskribatzailea da, eta interpretazio-grina ezinbestekoa da publikoarengana iristeko. Bai orkestra, ñabarduraz betea, bai Jone Martinez, lehen obran bezain saiatu, Beethovenen lanaren mailan egon ziren. Eneko Sagardoy narratzaileak ikusleei emozioak transmititzeko behar den indarra eta jenioa erakutsi zituen.

Kontzertu eder hau, egun hauetan normala den bezala, Eguberrietako bis dibertigarri batekin amaitu zen, bertaratutako guztiak liluratu zituen. Zorionak, benetan, EGOk kideei eta Ruben Gimeno zuzendariari egindako lanagatik. ●



Mugetan dantzatzea

XALBA RAMIREZ ANDER MERINO

Ausarta izan behar da negar egiteko. Behintzat publiko aurrean negar egiteko. Hori egiten duen pieza baten aurrean zapata zola bezalako izan behar da ez hunkitzeko. Nahiz eta gertatzen ari dena ez izan ulertterraza edo gustukoa.

Plazer estetikoaren erabat kamustuta mugitzen gara areto batetik bestera. Hunkitzea bilatzen dugu atsegintasunari esker. Melodia on bat, mugimendu polit bat. Arkitektura guztietan edertasuna topa daiteke. Sobietarrek bazekiten eta DAPAKoek ere badakite, Bidebieta eta Pasaia arkitektura mirestean.

Brutalismoaren garaiak noiz itzuliko zain egon gabe, esperimentu zintzoetan erosotasuna topatzea ez da zaila egiten. Esan nahi dut, batzuetan bada esperimentalismoa oso testuinguru pertsonalean proposatzen duenik, eta askotan kontzeptualegia da edo (eta) hotzegia. Baina zer ukitzen duen interesatzen zaigu. Hau? [burua seinalatuz] Edo hau?

[bihotza seinalatuz]. Bitako bat, gutxienez.

Manu Gaignek eta Jone Amezagak sortutako *Zerbait. Noizbait. Nonbait* piezan biak ala biak ukitu dituzte. Dantza musikatua ikustekoak ginen, baina beselako proposamen batekin egin dugu topo. Instrumenturik gabeko musika, koreografiarik gabeko dantza, gidoirik gabeko antzerkia.

Errenteriako Niessen aretoko urriko emanaldian, gorputzarekin musika egiten hasi dira, *reverse* gisako efektua gehituz eta atzekoz aurrera planteatuz. Gong batera hurbildu da Gaigne, baina ez du esperotako eran jo. Egurra ukitu du, eta ertzak, eta haztatzeari utzi dio, erritmoa mantenduz beti ere. Ez jotzea ere jotzea delako.

Perkusioak etetea oihu egiten du Jonen. Buru gaixotasunek hiriarekin duten lotura oinarri, *Ruidismoa* delako mugimendutik edanaz bozinak eta kotxeak eta txoriak nahastu dituzte. Eta lurra mikrofonoz bete oinen *delay*-arekin jolasteko.

ZERBAIT. NOIZBAIT. NONBAIT

HURRENGO EMANALDIA:

NOIZ: urtarrilak 24

NON: Donostiako Tabakalera

Eta aretoko ateak ireki kanpoko soinuekin elkarrekintza egiteko. Edo sartu ez den norbaiti gonbita egiteko. Edo atera ez den norbaiti.



Utzi dute eszenatokia minutu pare batez. Eta nik uste nuen oraindik piezak jarraitzen zuela, emozioak kudeatu, pentsatu, sentitu bitartean. Hutsaren garrantzia, hark zioen bezala. Eta gogoe-ta horien artean bukatu da. Amezagaren negar zotinak eserlekuen alboan entzuten zirela.

Esperimentalismoa esperientziatar eramanen jakitea da arteari eskatu dakioken gauza ederrenetako bat. Intimitateez hitz egiteaz gain, mugetara eramatea sentsazioak eta emozioak. Mugetan topatzen diren ideiak ederragoak direlako. Gaignek eta Amezagak egindako lehen lan honek etorkizuna du muga bakar. Hurrengo saioa hilaren 24an egingo dute Donostiako Tabakalera. Ez da berdina izango, baina ziur ez zarela damutuko. Zabalik hartzen baduzu. ●



Puzzlea

KOKA EZAZU PIEZA BAKOITZA DAGOKION TOKIAN ETA NOEMÍ GARCÍA, DESIDERATUM TATUAJE ESTUDIOKO SORTZAILEAK, ESANDAKO ESALDI BAT IRAKURRIKO DUZU.



Sudokuak

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.


	8	5	2					
2			4	7				6
	7			8	3			
1				5	4			9
5	9		3		7		4	2
6			8	9				1
			5	4			2	
7				2	8			3
				6	9	1		

			9	8				
		7		2		4	1	
			1	5				
1		5			3			8
		2			9			
8		3			2		5	
			1	7				
7	2		6		4			
		8		2				

5x5

ZE HARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Narrasti pozoitsua. 2. Errape.
3. Altuak, garaiak. 4. Fasea.
5. Bizkor.



Hizki berak

OSA ITZAZU HITZAK FALTA DIRENAK HIZKI BERAK DIRELA KONTUAN IZANIK, HORI BAI, HURRENKERA EZ DA ZERTAN BERA IZAN.

1				U	A	L	D	I
2	A				A	S	U	N
3	B	I				T	A	N
4	H	A	U				L	E
5	A	D	O	R				U
6	O	D	O	L	O			

EBAZPENAK

8	4	2	7	3	6	9	1	5
7	5	1	9	2	8	4	6	3
3	6	9	5	4	1	7	2	8
6	3	4	8	9	2	5	7	1
5	9	8	3	1	7	6	4	2
1	2	7	6	5	4	3	8	9
9	7	6	1	8	3	2	5	4
2	1	3	4	7	5	8	9	6
4	8	5	2	6	9	1	3	7

5	6	8	3	2	4	1	9	7
7	2	1	6	5	9	4	8	3
4	3	9	1	7	8	5	2	6
8	4	3	9	6	1	2	7	5
1	9	5	2	4	7	3	6	8
6	7	2	5	8	3	9	1	4
1	9	5	2	4	7	3	6	8
2	8	6	4	1	5	7	3	9
9	5	7	8	3	2	6	4	1
3	1	4	7	9	6	8	5	2

PUZLEA: "GERTAERA TRAUMATIKOK BIZI DITUZTEN EMAKUMEAK TATUAZTEN DITUGU, HALA NOLA INDARKERIA MATXISTA JASAN DUTENAK EDO BULARREROK MINBIZIA IZAN DUTENAK." **5X5:** 1. SUGEA, 2. UGATZ, 3. GARAK, 4. ETAPA, 5. AZKAR. **HIZKI BERAK:** 1. ESTUALDI, 2. ASETASUN, 3. BITSETAN, 4. HAUTESLE, 5. ADORETSU, 6. ODOLOSTE.

Isabel Benítez

SINDIKALISTA



LANGILE KLASEA ARDATZ

Duela ia hogeı urte iritsi zen Bartzelonara, ikasteko beka bati esker. Oraindik ikasle izanik, Bolonia planaren aurkako mobilizazioetan hartu zuen parte. Gauza batek bestera eraman zuen Benítez, eta Taifa ekonomia politikoko mintegian sartu zen buru-belarri, kapitalaren eta patriarkatuaren arteko erlazioak lantzen. Langile borroka da bere bizitzaren zutabeetako bat. Liburu bat argitaratu du: *Panrico, la vaga más llarga* (Panrico, grebarik luzeena).

“Osasun publikoaren eta askatasun politikoaren arteko dikotomia faltsua hautsi behar da”

Soziologia, ekonomia eta kazetaritza lanak uztartzen ditu Isabel Benítezek (Badajoz, 1981). Bartzelonara heldu bezain laster, mugimendu sozialetan hasi zuen ibilbidea: ikasle mugimenduan, COS sindikatuan eta etxebizitzaren aldeko borrokan. Karl Marxen pentsamendua lantzen duen Taifa mintegiko kidea da eta *La Directa* hedabidean kolaboratzaile gisa dihardu. Pandemiak arlo ekonomikoan eta sozialean ekarritako ondorioak aztertu ditu.

LEIRE REGADAS JORDI BORRÁS

Pairatzen ari garen krisi ekonomikoa pandemiaren ondorioa da edo lehenagoko testuinguru batean kokatu behar da?

Krisi ekonomikoa ez da pandemiaren ondorio zuzena, hori da egin beharreko lehen irakurketa. 2008ko krisira jo behar dugu eta gogoratu programa neoliberalak bultzatutako murrizketa eta zorpretze politiken ondorioz desberdintasunak nabarmendu zirela gizartean. Pandemiak desberdintasun horiek azaleratu eta areagotu ditu, besterik ez. Orain paradoxa baten aurrean gaude: jardueraren ekonomikoari eusten saiatzeko funts publikoak erabili beharra.

Eman dezake enplegua aldi baterako erregulatze espedienteena enplegu suntsiketa ekiditen saiatzeko mekanismoa dela, baina epe laburreko irtenbidea da. Zer dator gero?

Zorpretze mekanismo horrek polarizazio soziala handituko du arlo guztietan: etxebizitza duina izateko zailtasunak, enplegu suntsiketa, sol-

daten debaluazioa... prekarizazio eta bazterketa sozial handiagoa dakar. Argi izan behar dugu ez dugula inoiz berreskuraturiko duela urte batzuk izan genuen enplegu eskaintza, ezta zerbitzu publikoen kalitatea ere.

Oinarrizko errenta unibertsala edo lanaldiaren murrizketa gisako proposamenak izan al daitezke irtenbidearen parte?

Zentzua gal ez dezaten testuinguru jakin batean kokatu beharreko proposamenak dira biak. Adibidez, oinarrizko errentaren gainean erretorika maltzurra dago, zerbitzu publikoak murrizteko aukera eman lezakeelako. Nire ustez, zentzuzkoagoa litzateke pertsonen oinarrizko zerbitzu unibertsalak bermatzea. Bestalde, soldata-maila bermatu gabe lanaldia murrizteaz hitz egiteak pobrezia eta prekaritate handiagoa besterik ez luke ekarriko.

Lan merkatuaren baitan aldaketak sakontzea eragin du pandemiak: telelana geratzeko iritsi da, plataforma-kapitalismoa gero eta ohikoagoa da...



"ASKATASUN POLITIKOEN MURRIZKETEN TESTUINGURUAN KOKATU BEHAR DITUGU LAN ARLOAN EMATEN ARI DIREN ATZERAPAUOAK".

lan-eskubideei dagokienez atzerakada dagoela deritzozu?

Langileen eskubideei dagokienez, segurtasunari eta soldatari lotuta ematen ari diren atzerapausoak marko batean kokatu behar ditugu: askatasun politikoen murrizketak.

Garatu dezakezu?

Sistematikoki ezarri dira kontaktu sozialak mugatzen dituzten neurriak, produkzio-jarduera etenik gabe mantendu den bitartean, lan-eremuan kutsatzeak gertatuko ez balira bezala. Harrigarria da zeinen erraz ezabatu dituzten mugitzeko eta biltzeko eskubidea, eta izaera politiko nabarmena duen krisiaren aurrean ezinezona adierazteko eskubidea.

Neurriak ez dira pandemiaren hasieran indartzen zen bizitza erdigunean jartzearen diskurtsoaren eskutik joan.

Egin beharreko galdera da: zer-nolako bizimodua jarri nahi dugu erdigunean? Bizitza bada garrantzitsua kapitalismoarentzat, baina produkzioaren zerbitzura dagoen bizitza da hori. Badirudi dekretuak diseinatzeko erabiltzen ari

den ikuspegiaren arabera atomoak gara, gizartearen parte ez bagina bezala. Familia nukleoak, hurbilekoak, eta bestelako kontzeptuak erabiltzen dituzte politikariek beren diskurtsoetan. Baina zer gertatzen da familia tradizionaletik at dauden erlazio eta komunitateekin?

Murrizketen ondorioz antolakuntzarako zailtasunak daude. Egokitu gara edo ikusle kritiko bihurtuko gara?

Idealismotik harago, hilabeteotan izan dira elkartasun kolektiboaren adierazpen antolatu nabarmenak: elkarlaguntza sareak, etxebizitza sindikatuak, poliziaren gehiegikerien salaketak... baina krisia gainditzeko boluntarismoa baino zerbait gehiago behar dugu. Aztertu beharko genuke ea ba ote dagoen Europako Batasunak, CEOEk (Espainiako Enpresaburuen Elkartearen Konfederazioa) edo finantza-oligarkiak ematen dizkiguten apurak baino zerbait gehiago lortzeko gai den indar antolatutik.

Pandemiaren ondorioetako bat izan da parte-hartze politikoa eta ekintza kolektiborako indarra

ahultzea. Zergatik gertatu da eta nola berreskura daiteke?

Beti egiten da arriskuen eta onuren balantzea, eta orain ekintza kolektiboak gauzatzeko aurreiritzi potentzialak onurak baino handiagoak dira. Osasun publikoaren eta askatasun politikoen arteko dikotomia faltsua hautsi behar da. Askatasun politikoen defentsa bermatzea baita eskubideak lortzeko eta mantentzeko bidea.

Aldiz, atsekabe adierazpen batzuk sistematikoki lotu dira negazionismoarekin edo ultraeskuinarekin.

Bai, horregatik aipatzen nuen lehen aurreiritzia. Madrilgo auzo aberatsetako faxistak manifestatzen direnean, gainera, askatasun politikoen aurka egiten dute, osasun publiko kolektiboaren aurka. Etxegabetze bat geldiarazteko unean baliteke distantzia soziala haustea, baliteke norbaitek maskara ondo jantzita ez eramatea, baina defentsa kolektibo ariketa bat egiten ari dira. Pandemiaren testuinguruan protesta kriminalizatzeko diskurtsoaren azpikokoa ez dugu erori behar, irakurketa guztiz antagonoikoak direlako. ●



Hesian-ek bere ibilbidea eten du eragindako kaltea onartu gabe



FRAN ETA ZURI BADOAZ

Lehen kontzertua eman zuenetik 9.647.815 biktima eragin ditu Hesian-ek, milaka ertzain, enpresari eta Sortuko militante tartean. Barkamenik ordea ez du eskatu bere agurrean. Garaitua sentitzetik urrun, albistea emateko eszenifikazio berezia bilatu du bandak, tresnak behin betiko utzi eta bizikidetzarako urratsa ematea bere meritua balitz bezala. "Inguratua ikusi du bere burua, arrazoiaren indarrak hesiturik, eta horregatik erabaki hau", adierazi du denetarako balio duen Jonan Fernandez bake-gizonak. Bihotzak beterik doazela

adierazi dute Zurik eta Franek bandaren azken komunikatuan. Eta esaldi horren atzean ezkutuko mehatxua ote dagoen zalantzak agertu ditu Jonanek. "Albiste pozgarria da, baina ezin gara besoak gurutzatuta geratu, bakea etorri dela pentsa genezake, baina erradikal hauek beti ari dira makinatzen, eta gutxien espero duzunean, ttak! Hortxe dira inpernuko tronpetaz eta azukre zakukadaz beterik kaka emateko prest... Ez harritu beraz Ibizako erbestetik kontraerasoa abiatzen badute pandemiari buruzko kanta udatiarrekin". ●

SAREAN ARRANTZATUA

Ertainek eta erizainek behar zaituzte



@DNEZTEBEARISTI



AZPEITIA GORRIA ZEN GARAIO IRUDI BAT

GKSk ez du ulertzen zergatik Azpeitia atera duten eremu gorrien zerrendatik

Sozialismoarako GPSa duen GKS taldeak beste komunikatu bat argitaratu du. Eta "aspirazionismoa", "miseria epistemologikoa", "gainbalio absolutua" eta horrelakoen artean, Beranduegik deszifratu duenez, Euskal Herri langileari zein besteari helarazi dieten mezuan, ez zaie gustatu Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak Azpeitia eremu gorrien zerrendatik atera izana, koronabirusaren intzidentzia

tasa apaldu dela eta. "Azpeitian dena gure kontrolpean dago, baita proletargoaren zezenketak ere, zein dira konplexuz betetako burges haiek gure herriaren kolorea inposatzeko?", diote subsumituta, Jaurlatxirlaren erabakiak haien etika eta praxis komunistaren emaitza materialak Azpeitian ezbaian jarri dituelakoan. PCR erreformistek ezkutuan egindako jukutria jo dute errudun. ●

Ilargia eta landareak

Agenda 2021

Jakoba Errekondo

Antton Olariaga

Norberaren egunerokoa
ilargiarekin eta
lurrarekin uztartzeko
erraminta da agenda hau.




14€

Etxeko landareak

Jakoba Errekondo

Loreak etxeko poza dira. Ongi
zaintzen dituenak bizitzaren
edertasuna jasotzen du
opari. Liburu honetan
deskubrituko dituzu
bakoitzaren jatorria,
beharrak eta gustuak.

25€



7€

Ilargiaren egutegia 2021

Jakoba Errekondok garaiko
uztak eta baratzea, fruitu arbolak
eta basoko lanak. Pello Zabalak
aukeratutako esaerak. Maria Thunen
egutegi biodinamikoarekin osatua.

Artikulu hauek erosita
ekarpen ekonomikoa
egingo diozu

Bilboko Mbolo Moye

Doole elkarteari.

Atera aldarria kalera
euskaraz eta wolofez!

24€

Amul been nit ku leegakul

inor

ez

da

ilegala

ARGIA-KA MBOLU MOYE DOOLE ELKARTEA

8€

Amul been nit ku leegakul

inor

ez

da

ilegala

ARGIA-KA MBOLU MOYE DOOLE ELKARTEA

Amul been nit ku leegakul

inor

ez

da

ilegala

ARGIA-KA MBOLU MOYE DOOLE ELKARTEA

Amul been nit ku leegakul

inor

ez

da

ilegala

ARGIA-KA MBOLU MOYE DOOLE ELKARTEA

Amul been nit ku leegakul

inor

ez

da

ilegala

ARGIA-KA MBOLU MOYE DOOLE ELKARTEA

15€

Eskaerak egiteko:

943 37 15 45

argia.eus/azoka